



## Kike Amonarriz



«Hizkuntzak  
derrigorra du umorea»

- **Rosa Garcia**, Kaleratzeak Stop «Alokairu sozialerako etxe gehiago lortuko genituzke, bankuen etxe hutsak erabiliz gero»
- **Ukraina** Egun bat Donbasseko gerra frontean
- **Rebeka Ubera** «EH Bilduk irekia izan behar du, koalizioaren organoetan herritarrek parte hartu dezaten»
- **Morau** «Beti dira garai onak kantautore kronista batentzat»
- **Net Hurbil** Argindar sarea berriro publiko Hanburgon eta beste hamaika hiritan

Argia  
Durango



Azaleko argazkia:  
DANI BLANCO  
Azala: GARBINE  
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egilek aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. [www.argia.eus](http://www.argia.eus): Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetza: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza tekniko: Aloña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: [komertzial@argia.eus](mailto:komertzial@argia.eus). Harpidetza: [harpidetza@argia.eus](mailto:harpidetza@argia.eus). Erredakzioa: [kazeta@argia.eus](mailto:kazeta@argia.eus). Interneten: [www.argia.eus](http://www.argia.eus). Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iama eta interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAIA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundua



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



## NON ZER

2014ko abenduaren 7a, 2.440. zenbakia

### ASTEKO GAIA

**PUBLIZITATE INSTITUZIONALA** Gaztelaniazko %97,  
euskarazko %3. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 4

### PERTSONAIA

**KIKE AMONARRIZ:** «Belaunaldi bakoitzak erabakiko du euskara mantentzen duen ala ez». MIEL A. ELUSTONDO / 10

### GAIK

**AUZOLAN ESPERIENTZIAK** Sanjuandegi auzoa biziberritzen.  
LIDE HERNANDO / 16

**ROSA GARCIA, KALERATZEAK STOP:** «Bankuei etxe hutsak desjabetu ahal izatea atzera bota dute EAJk, PPk eta UPyDk».  
MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 18

### IRITZIAREN LEIHOA

#### LEGALITATE TRANTSIZIOA KATALUNIAN

ASIER BLAS MENDOZA / 22

**GATAZKAREN ALDE** IVÁN GIMÉNEZ / 24

**SAREAN** JOSE IGNACIO ANSORENA / 25

**GORA PRO NOBIS** ASISKO URMENTA / 21

**ZIRTA** Ni banao. DANELE SARRIUGARTE / 23

**TXANDAN** Normaltasun testa. KATTALIN MINER / 24

**BERTSO BERRIAK** Euskal Kulturgintzaren transmisioa.  
MIREN AMURIZA PLAZA / 26

### ERDIKO KAIERA

**MORAU ETA BEÑARDO:** «Himno handien garaia da, baina pertsonen istorioak gehiago interesatzen zaizkigu».  
LANDER ARRETxea BEREZIARTUA / 28

**BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA** Elkarri tiraka, azkeneraino. MALEN ALDALUR / 31

**LITERATURA** ARITZ GALARRAGA / 34

**IKUS-ENTZUTEKOAK** GAIZKA IZAGIRRE / 35

**DENBORA-PASAK** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 36

**ALEA** Erraldoiaren komeriak. MYRIAM GARZIA / 37

**ZIENTZIA** JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 38

**LANDAREAK** JAKOBA ERREKONDO / 39

**DENBORAREN MAKINA** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

### TERMOMETROA

**REBEKA UBERA:** «Podemosek trantsizioan eman ez zen apurketa gauzatzen lagundu dezake». MIKEL ASURMENDI / 42

**DONBASS GERRAN** Kosakoen burdinazko gerrikoa.  
IBAI TREBIÑO, LUR GIL / 46

**FRANCESC MARCO:** «Inkesta soziolinguistikoan berriro egiaztatu dugu katalana askatasunaren hizkuntza dela».  
IURE EIZAGIRRE / 52

**KUTXABANK** «Banku txarra» erdi-prezioan salgai.  
URKO APAOLAZA AVILA / 54

**EUSKARA ALBISTEAK** ONINTZA IRURETA AZKUNE / 55

**EKONOMIAREN TALAIA** JUAN MARI ARREGI / 55

**NET HURBIL** Pribatizatua irauli: Hanburgok argindar sarea publiko egin nahi du. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 56

**MALTZAGATIK** XABIER LETONA / 58



# Gaztelaniazkoei %97, euskarazkoei %3

Erakunde publikoek milaka euro bideratzen dituzte publizitate instituzionalera. Euskal Autonomia Erkidegoan, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak hainbat publizitate eta informazio ekintza mota bideratzen dituzte hedabideetara, hala nola, kanpainak, iragarki ofizialak eta babesak. 2013an, Eusko Jaurlaritzak 4.782.184 euro erabili zituen hedabideetan eta bestelako euskarrietan kontratazioak egiteko (euskarazko hedabideak sustatzeko erabili zuen diru-laguntzaren pare: 4.875.000). Publizitate horren diru kopuruaren %2,96 bideratu zuen euskarazko hedabideetara.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Argazkia: Axier Lopez



EUSKO JAURLARITZAK 2013AN publizitate instituzionalean gastatu zuen diru kopuru osoa aipatu berri duguna baino handiagoa da. Zaku osoa 5.702.311,87 eurokoa izan da eta bi zatitan banatzen da. Batetik, publizitatearen sormena, ekoizpena, lokuzio eta irudi eskubideak ordaintzen dizkie enpresa esleipendunei, eta bestetik, hedabide eta bestelako euskarrietan publizitatea sartzeko kontratazioak egiten ditu. Diru kopururik handiena bigarrenean dago: 4.782.184,70 euro. Heda-

bideetara bideratutako diru poltsa horretatik, gaztelaniazko komunikabideek %97,04 jaso dute eta euskarazkoek %2,96. Publizitate instituzionala jaso duten euskal hedabideak ondokoak dira: *Anboto*, ARGIA, *Berria*, *Gazte-zulo*, Hamaika TB, *Hirinet*, Bizkaia Irratia, *Entzun!* eta *Euskal Herria*. Hekimeneko (Euskal Hedabideen Elkarte) kideak soilik kontuan hartuta, portzentajea %2,48 da. Eusko Jaurlaritzak publizitatean gastatu duena eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eus-



karazko hedabide ez publikoei emandako diru-laguntzak alderatuz gero, kopuruak oso antzekoak dira: 4.782.184,70 euro publizitatean eta 4.875.000 euro diru-laguntzetan.

Publizitate bidez, 4.678.271,51 euro gaztelaniazko hedabideetan, 103.913,19 euro euskarazkoetan. Desoreka nabarmena da, %2,96 euskal hedabideetan. Alde batetik, euskarazko hedabideek merkatuan duten hartzaille kopurua %2,96 baino handiagoa da, eta bestetik, publizitate banaketa horrek euskaldunak, hedabideak euskaraz kontsumitzen dituen herritar sektorea, kanpo uzten ditu. Desorekaz galdetu diogu Alberto Barandiaran Hekimeneko zuzendariari: “Desoreka begi-bistakoa da. Euskal hedabideek %3 hori baino askoz ere esangura komunikatibo handiagoa dute. Euskarri guztietan presente daude, eta haiek dira euskararen hiztun komunitatearekin lotura ziurtatzen dutenak. Irizpide politiko eta linguistikoen ikuspegitik, portzentaje hori ez da inola ere egokia”.

Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak euskarazko hedabideetan kontratatutako portzentajeak aztertuz gero, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarena da altuena: %5. Euskarazko hedabideetan 28.951 euro kontratatatu ditu. Kopuru absolutuak kontuan hartuz gero berriz, Hezkuntza, Hizkuntza

Politika eta Kultura Saila da euskarazko hedabideak gehien kontratatatu dituen: 32.456 euro. Deigarria da euskararen normalizazioa sustatzeko eta babesteko ardura duen sailak diru kopuruaren %4,57 baino ez bideratzea euskarazko hedabideetara. Euskarazko hedabideak gutxien kontuan hartu dituen saila Segurtasun Saila da; 9.370 euroren balioko kontratazioak egin ditu, guztia- ren %0,98. Gainerako sailen artean ez dago alde handirik.

Euskadiko Publizitate eta Komunikazio Institutuzionalari buruzko 6/2010 Legearen arabera, Eusko Jaurlaritzako Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordeak bi txosten egin behar ditu urtero: amaitutako urteari buruzko memoria bat eta hasiko den urterako plan bat. Eman ditugun datuak 2013ko memoriakoak dira. Bi dokumentu horiek Legebiltzarrera bidaltzen dira urte bakoitzeko saioen lehen epealdian (otsailaren 1etik ekainaren 30era).

### Foru Aldundiak

Eusko Jaurlaritzaren 2013ko memoria interneten aurki daitekeen moduan, foru aldundien txostenik ez dugu aurkitu sarean. Bizkai-ko Foru Aldundiak adierazi digunez, EH Bildu talde politikoak Batzar Nagusietan gai

zauden lekuan  
**jaso**  
gaztezulo  
aldizkaria

**harpidetu**  
Tel.: 943 457 250  
harpidetza@gaztezulo.eus


urtean  
**22**  
euro

**gaztezulo** EUS  
NI ETA HIRE MUNDUAK

@Gaztezulo

## EUSKO JAURLARITZAREN (HPS) DIRU-LAGUNTZAK EUSKARAZKO HEDABIDEEI (2014\*)


|                                                                 |                       |
|-----------------------------------------------------------------|-----------------------|
| Egunerokoak edo tokian tokikoak, beti ere idatzizkoak           | 2.524.000 euro        |
| Informazio orokorreko aldizkariak eta aldizkari espezializatuak | 1.137.500 euro        |
| Irratiak, osorik edo zatika euskaraz ari direnak                | 227.500 euro          |
| Telebistak, osorik edo zatika euskaraz ari direnak              | 500.500 euro          |
| Internet bidezko hedabideak                                     | 485.500 euro          |
| <b>Guztira</b>                                                  | <b>4.875.000 euro</b> |



\*2013an kopuru bera banatu zen.


## EUSKO JAURLARITZAK 2013AN PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO INSTITUZIONALEAN ERABILITAKO DIRUA

|                                                   |                   |
|---------------------------------------------------|-------------------|
| Hedabide eta euskarrietan espazioen kontratazioan | 4.782.184,70 euro |
| Euskarazko hedabideetan                           | 103.913,19 euro   |
| Gaztelaniazko hedabideetan                        | 4.678.271,51 euro |




### SAILEZ SAIL

- Euskarazko hedabideetan
- Gaztelaniazko hedabideetan




## PUBLIZITATE BANAKETA HEDABIDE MOTAREN ARABERA



## PUBLIZITATE BANAKETA HEDABIDE MOTAREN ARABERA, EUSKARAZKOETAN

- Eguneroko prentsa
- Aldizkariak
- Irratia
- Telebista
- Internet



## PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO INSTITUZIONALA JASOTAKO HAINBAT HEDABIDE

|                                                            |                |
|------------------------------------------------------------|----------------|
| Telebista                                                  | 1.085.388,46 € |
| G. Vocento: El Correo, El Diario Vasco                     | 947.409,30 €   |
| G. Noticias: Deia, Noticias de Gipuzkoa, Noticias de Alava | 460.719,52 €   |
| EITB Irratiak                                              | 333.510,63 €   |
| Grupo Prisa (Cadena SER+40 Principales)                    | 300.757,31 €   |
| Onda Vasca                                                 | 233.745,31 €   |
| Gara                                                       | 105.184,13 €   |
| El País                                                    | 87.149,12 €    |
| El Mundo                                                   | 74.515,64 €    |
| Onda Cero                                                  | 60.184,23 €    |
| Berria                                                     | 59.086,95 €    |
| Cadena Cope                                                | 27.678,65 €    |
| Grupo Nervión                                              | 23.723,78 €    |
| Radio Popular de Bilbao                                    | 23.491,33 €    |
| Cadena 100                                                 | 17.865,48 €    |
| Bizkaia Irratia                                            | 8.780,80 €     |
| Argia                                                      | 7.892,00 €     |
| Euskal Herria                                              | 7.146,00 €     |
| Anboto                                                     | 7.000,00 €     |
| Hirinet                                                    | 5.000,00 €     |
| Gaztezulo                                                  | 4.890,69 €     |
| Hamaika TB                                                 | 3.031,73 €     |
| Entzun!                                                    | 1.157,02 €     |

*Iturriak: Publizitate eta komunikazio instituzionalaren memoria 2013 eta Hekimen.*

**KONTZERTUAK**

**Abenduak 20**  
Bilboko Kafe Antzokia

**Urtarrilak 30**  
Iruñeko Gayarre antzokia

**Otsailak 8**  
Donostia Victoria Eugenia



**RUPER ORDORIKA**

lurrean etzanda



Musikarik onena zuretzat  
[www.elkarargitaletxea.com](http://www.elkarargitaletxea.com)

**elkar**



### Alberto Barandiaran, Hekimeneko zuzendaria

“Orain, datuak ezagutu ondoren, Jaurlaritzarengana jotzeko ordua da”

Zergatik jarri du Hekimenek (Euskal Hedabideen Elkarte) fokua publizitate instituzionalaren kudeaketan?

Hekimenek sortze beretik esan du publizitatea landu beharreko gaia dela. Publizitate instituzionala, eta publizitate komertzial bateratua. Publizitate bateratuaren inguruan urratsak egin ditugu aurretik, eta Gipuzkoako Foru Aldundian eskaintza bateratua egin dugu Hekimeneko Gipuzkoako hedabideen artean, eta emaitza oso ona izan da. Orain, beste esparru batzuetara nola zabaltzea aztertzen ari gara.

Publizitate instituzionalari dagokionez, iaz Legebiltzarrean eskatu genituen Jaurlaritzak egingako publizitatearen datuak, eta duela gutxi ezagutu ditugu. Guk uste genuena baino txarragoak dira: %2-3 inguruan dabil Jaurlaritzak euskal hedabide ez publikoetan egiten duen publizitatearen kopurua. Oso-oso gutxi da hori.

Zein irizpide erabiltzen ditu Eusko Jaurlaritzak publizitatea hedabide batean edo bestean banatzeko? Eta Hekimenen ustez, zeintzuk beharko lukete irizpideak?

Ez ditugu ezagutzen Eusko Jaurlaritzaren irizpideak publizitatea banatzeko orduan. Hekimenen ustez, irizpide horiek zentzuzkoak izan beharko lirarteke, zuzenak eta objektiboak. Eta iruditzen zaigu elebiduna dela dioen administrazio batean, euskal hedabideetan, euskara hutsean transmititzen duten hedabideetan, kanpaina publikoek askoz ere presentzia handiagoa izan beharko luketela.

Gai hau lantzen ari al da Hekimen Eusko Jaurlaritzarekin?

Hekimen gaia lantzen ari da sektore barruan, identifikatzeko ondo nola egin behar dugun lanketa hori, eta identifikatzeko zein izan behar duten helburuek. Laster urratsak egingo ditugun itxaropena daukagu. Orain, datuak ezagutu ondoren, Jaurlaritzarengana jotzeko ordua da.

Foru Aldundiek nola kudeatzen dute gai hau? Badira txosten publikoak? Aztertu dituzue? Ados zaude hauen irizpideekin?

Foru Aldundiek bakoitzak bere erara kudeatzen dituzte gai hauek,



JOSU SANTESTEBAN

eta ez dago irizpide batasunik. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, esaterako, hainbat kanpaina eraman ditugu aurrera 2014an zehar, eta espero dugu aurrerantzean ere horrela jarraitzea. Oso balorazio ona egin dugu egin den lan horren inguruan. Bizkaiko Foru Aldundiari gaia proposatu genion, baina erantzun ziguten haiek ez dutela publizitaterik sartzen diruz laguntzen dituzten hedabideetan. Iruditzen zaigu hor ere badagoela zer landu: zer den diru-laguntza politikoa, eta zer den eskaintza komertziala. Horri guztiari heltzeko garaia da orain.

horretaz galdetu du, eta gaia landuko dute, baina instituzioa eta ahaldunak errespetatzeko asmoz, Batzar Nagusietan datuak ezagutzera eman arte ez dute informazioa zabaltzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak duela bi urtez geroztik publizitate instituzional guztia

Komunikazio zuzendaritzatik bideratzen du eta iaz hasi baziren ere, publizitate banaketaren informazio zehatza jasoko duen dokumentuaren aurrelana bukatzen ari dira, eta beraz, aurki aurkeztuko dute 2014koa. Publizitate banaketa egiteko irizpideez galdetuta, Xabier Lekuonak adierazi digu 1994ko foru araua dagoela, bere ustez, zaharkitua, besteak beste prentsa idatzia baino ez du kontuan hartzen. Arau horrek lau ardatz ditu oinarri: berdintasun irizpidea, proportzionaltasuna, eraginkortasuna eta euskara. Foru Aldundiak hedabide publikoak eta euskarazkoak lehenesten ditu, baita tokikoak ere. Euskarri oro kontuan hartuta, 70 hedabide baino gehiagotan jarri dute publizitatea 2014an. Foru arauak dio publizitatearen %8 euskarazko hedabideetan sartu behar dela. Lekuonak aurreratu digunez, 2014ko txostenak dio publizitate gehiago sartu dela euskarazko hedabideetan gaztelaniazkoetan baino. ■





**INAKIBEREZIARTUA**  
Enbalajeak · Biltegiatzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza



**25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828  
[www.inakibereziartua.com](http://www.inakibereziartua.com) · [mjm@inakibereziartua.com](mailto:mjm@inakibereziartua.com)



# OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL) ABENDUAK 20, LARUNBATA

bi saio: 16:00 eta 18:30

Sarrerak: aurretik 7 euro, egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

Harremanetarako:

☎ 943 37 15 45  
sustapena@argia.com

Antolatzailea

ARGIAREN Adiskideak  
Usurbilgo Taldea



Laguntzaileak

Kilometroak  
2015

Udarrégi  
IKASTOLA

Ikastolenkarte



KIKE AMONARRIZ

# «Belaunaldi bakoitzak erabakiko du euskara mantentzen duen ala ez»

Hogeita hamalau urte eta gero, agur esango digu Kike Amonarrizek ARGIAko irakurleoi. Agurraren garaian, hizketan lotu gatzazkio, txistetik hasirik. Bada irribarrea, eta irribarrea besterik ere bai. Agur, bada, baina ez adiorik!

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Dani Blanco

Kantari gatoz kopla zaharra: "Hauxe da despedidea / hauxe da despedidea / despedida honen tristeia / agur aita eta ama / agur anai arrebea / agur anai arrebea / hauxe da despedidea". Txiste kontatzeari utziko diozu ARGIAN.

Ez dakit agurra den, baina eten bat bai, behintzat. Nekea ere sumatzen nuen, eta hogeita hamalau urte eta gero etentxo egiteko garaia dela iritzi nion. Betiko izango den ez dago esaterik sekula. Neke apur bat, ez da besterik.

**Txorakikeriak** berriaren azala ere ikusi dugu: Mona Lisa da, baina zeure aurpegia eta irribarrea ageri ditu!

Txiste txar batetik sortua da. A-mo-na-ri-z (a), bada, Mona Lisa bat egingo dut neure aurpegiarekin. Liburuaren edukia islatzen duelakoan nago, urteetako bilketa, moldaketa eta egokitzapen lanaren fruitu da. Irribarreak, kasu honetan, are gehiago erakusten du barrenean dagoena, barre algara baino. Hemengo umorea kritikoa da, gogoetarakoa ere bada... Eta bestalde, neure buruaz barre egiten saiatu naiz: pertsonaia asko tolosarrak dira, gizonezkoak, euskarari buruzko materiala ere dezente, politikari buruzko txistek ere ez gutxi, pentsarazi egiten dizutenak.

Euskal filologian lizentziaduna zaitugu, soziolinguista, telebista aurkezle... Zer duzu umorea zure lan profesionalean, soziolinguistarenean bereziki?

Hizkuntzaren funtziorik nagusietakoa funtzio ludikoa ere bada, eta soziolinguistikak funtzio hori kontuan hartzen ez badu, gaizki gabilta. Hizkuntza, berez, bata bestearekin komunikatzeko da, herri bat eraikitzeko, komunitate bat

trinkotzeko, eta horretarako, derrigorra du umorea, ludikotasuna, hizkuntza beraren erakargarritasuna, erabilgarritasuna, aberastasuna. Umorea lantzeko ere, hizkuntza tresna da. Zenbat eta hizkuntza aberatsagoa, zorrotzagoa, herrikoia, orduan eta umore nora-nahikoagoa izan genezake. Horixe gogoan sartu nintzen txiste afarietan. Haien helburua soziolinguistikoa zen. Gero, *Txiskola* etorri zen ETBn, eta haren helburua ere, batez ere, soziolinguistikoa zen. Eta soziolinguistikari buruzko hitzaldietan ere, umorea funtsezkoa izan zait, mezuak helarazteko. Horrekin batera, umorea nahitaezkoa da gazte hizkera lantzeko. Ate asko zabaldu dizkit umoreak, eta soziolinguistika jardueraren zenbait norabide ere umoreak argitu dizkit.

Umorea, soziolinguistika, telebista...

Dena lotuta ikusten baitut! Nire obsesioetako izan da, nola lortu hizkuntzaren aldeko

## NORTASUN AGIRIA

**Kike Amonarriz Gorria** (Tolosa, 1961) Euskal Filologian lizentziadun, soziolinguista, umoregile, aurkezle. Tolosako Udaleko euskara teknikari eta Siadecoko langile izana. *Zeruko Argian* hasi zen umorezko artikulua idazten eta txiste kontatzen, eta hogeita hamalau urte egin ditu astekari honetan txorakikeritan. Soziolinguistikazko hainbat artikuluren egile eta ETB1eko hainbat eta hainbat saiotako gidolari eta aurkezle izana: *Hitz eta Pitz*, *Funtzioa*, *Hau da A.U.*, *Balinda*, *Txiskola*, *Mihiluze*... 2013tik, *Tribuaren* *berbak* programa aurkeztu eta zuzentzen du ETB1en. *Azken Txorakikeriak* liburu argitaratu berri du.





## Eskatu baino lehen, egin

**"Sekulako eztabaida izan genuen orduko hartan Tolosan. Euskara bultzatu nahi genuen inauterietan, %100 erdaraz zirenean. Bi ziren planteamenduak. Batzuek zioten pankartak hartu behar zirela, karrozetara igo eta euskaraz egin behar dela esan behar genuela. 'Bada, nik ez nuke hori egingo: mikroak hartu eta inauteriak euskaraz egingo ditugu!', esan nuen. Eta aldamenetik, beste batek: 'Gu nola jarriko gara, bada, mikroarekin?', eta, nik: 'Gu jartzen ez bagara, zein jarriko da, bada?'. Horixe izan dut ikuspegia: ezer eskatu aurretik, egin!'".**

jarrerak zabaltzea. Ikusle, irakurle, hiztunak erakartzea, geureganatzea. Nola lortu gure diskurtsoak, gure produktuak ahalik eta gehienengana iristea. Hortik jo dut beti. Gogoratzen naiz, behin, Tolosaldea berreuskalduntzeko elkarte sortu genuenean, 80ko hamarkadan, gure galdera: "Zer egingo dugu jendea erakartzeko?". Bertso jaialdiek jendea biltzen zuten, baita hitzaldiek ere, baina besterik behar genuen, eta horrela antolatu genituen txiste afariak, ordurako Iparraldean egiten hasita zeudenak. Eta sekulako arrakasta! Txiste afarietan jendea pozik ikusi nuen, barrez, hizkuntzarekin gozatzen, txisteak euskaraz konta zitezkeela sinesten... Horixe izan da bidea.

*Tribuaren* *berbak* saioraino irauten duen bidea...

Horretan nago ni. Helburu bat nuen saioari ekin nionean, gure tribua nola ari den erakustea, noraino iristen den, zein anitz den, zein interesgarri, zenbat gauza dauden gure tribuaren barruan. Askotan ahaztu egiten zaigu nola ari den gure tribua! Behin eta berriz esan digute txikiak garela, ahulak, gureak ez duela ezertarako balio... Sinetsi dugun arte! Tira, ez gara hain handiak, badakigu nola gauden, gure egoera ahula dela, ia-ia desagertzeko arriskuan egotetik gatoz... Hori dena badakigu, baina *Tribuaren* *berbak* eginez, bestelako ikuspegi bat erantsi nahi dut: "Horrek ez digu aurrera egiteko balio. Aurrera egiteko, bestelako ikuspegi bat, bestelako jarrera eta aldarteak behar ditugu". *Tribuko* elkarriketatuei horixe esaten diet beti: "Errealitatea dena da, eta kontatu egin behar dugu, izan gordin edo gozo; esan nola ari garen, ondo ala gaizki; hoberantz goazen ala okerrerantz. Baina bukaeran, irrintzi bat behar dugu. Aurrera egin behar dugul!". Baten batek esan izan du: "Programa baikorra da". "Zaude! Programak ez du egoeraren irakurketa baikorra egiten, baina egoera edozein delarik ere, baikorra da jarrera, eta horrela irabazten dira partidak!". Hori transmititu nahi izan dugu, eta hori espiritu umoretsua da!



Zenbat herri gure tribuak! Beti-betiko lekuak ez ezik telebistan agertu ohi ez direnetan ere bada tribu: Tuter, Lapuebla Labarka, Tafalla...

*Mihiluzen* ere bagenuen kezka hori: gu Euskal Herrian gaude. Inork ezin du jakin nondik egiten den gure saioa, nondik abiatzen garen, dela Bilbotik, dela Iruñetik, dela Baionatik. Euskal Herrian dugu fokua jarria, ez da Gipuzkoatik begira egiten den programa, ez: Euskal Herriatik Euskal Herrira begira egiten da. Horixe da gure tribuaren aniztasuna. Gu, izan ere, tribuaren lurraldean mugitzen gara, Euskal Herrian, baina ez Euskal Herrian bakarrik. Skype bidez nahiz furgonetaz, tribua dagoenera hurbiltzen gara: Montevideon zuberotarrez ikasi duen Carlos Costarekin izan gara, Madrilén Carlos Cidekin mintzatu gara... Tribukide dira,

euskal herritar ez izanagatik ere, Bartzelonako euskaldunen moduan. Edo Maria Spandini greziarra eta José Miguel Ramírez kolonbiarra, tribukide. Hori bai, tribuak bizirik jarraituko badu, Euskal Herria behar du, horixe du bere gune geografikoa, eta gainera, Euskal Herrian bertan gune indartsu bat behar du, egoera onean, behar ditu arnasguneak herri eta hirietan, behar du geografikoki zabaldu, demografikoki indartu, lurraldea berreskuratu... Hori guztia ere behar du.

**Etzegabe da tribua? Beti kalean zuek...**

Programaren formatuari lotua dago hori. Hasi aurretik esan genuen: "Ezin dugu euskarari buruzko saioa egin, atzean liburuz betetako apalak dituzten pertsonak—gizonezkoak, gehienak—elkarrizketatuz". Irudi horrek adierazten du programa jende jakin batentzat dela, eta, juxtu, gure programa jende jakin horrentzat ere bada, baina ez batez ere horientzat. Kaleak airea ematen du, berriketa. Klean ezin da "morfosintaxi"



## Liburu azoka

Hondarribian, abenduaren 11tik 14ra San Pedron.

**EUSKADIKO LIBURU GANBARA**

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

*Bizi irakurriz!*



## Tribua

**“Elkar ezagutu behar dugu, mugitu, tribua ezagutu, ipar eta hego, eki eta mendebalde. Hitz egin, mugitu, nahastu, bata bestearen hizkerak jaso, errespetatu, onartu. Ezin dugu iparraldeko hizkera ez dugula ulertzen eta atzera egin. Ezin diogu hamar urtean euskara ikasten ari denari barre egin, ezta okerrak egiten dituenari ere, ezin diogu eskatu halako hiriburukoari azpeitiarrak bezala hitz egitea. Elkarrekiko harremana eta errespetua behar ditugu, eta jakin XXI. mendeko euskara ez dela XIX. mendekoa bezalakoa izango. Ezin du izan, hala balitz galduak ginatekeelako!”.**

esan, besterik esan behar da. Kaleak hizkera herrikoia, ulergarria erabiltzen laguntzen gaitu, hizkera teknikotik aparte. *Tribuaren berbak*-en armarriak hiru hitz ditu: “Argi, labur, mamitsu”.

### Euskaldun zaharra, berria da tribua?

Tribua euskalduna da, eta euskaltzalea da. Euskaldunberri kontzeptuaren inguruan bada eztabaida interesgarri bat, ezabatu behar ote dugun. Ni euskaldunberri kontzeptua mantentzearen aldekoa naiz eta badut arrazoi bat: euskaldunberrien ahalegina nabarmentzeko modua egiten duelako. Euskaldunberri izateak adierazten du, adin batetik aurrera, gutxi jakinda edo batere ez, euskararen ikasketa prozesuari heldu eta ikastera iritsi den pertsona. Maltza garrantzitsua da, eta gure lehen programetako batean euskaldunberriaren monumentuaz aritu ginen. Maltza kualitatiboki ezinbestekoa izan da gure normalizazio prozesuan, eta merezi duena baino aitortza txikiagoa jaso du orain arte. Bestalde, zenbait egoera azaltzeko ezinbestekoa da euskaldunberria. Balio handikoa da, errespetu handikoa. Gainerakoan, gure tribuan denetarikoa euskaldunak ditugu, eta horixe erakusten saiatu gara: tribuan mundu guztiak dauka sarbidea, adin, jatorri, kolore eta pentsaera guztietakoak.

Guztiontzako kalea egiten saiatu gara tribuan, euskara eta euskarazko komunikazioa helburu duena. Horrekin bat datorrenak, erraza du sarbidea gure kalean: esparru komun bat, non euskaraz bizi, komunikatu eta gozatu nahi duenak horretarako aukera izango baituen.

Harrigarri zait zenbat eta zenbat jende ari den euskararen gainean gogoetan.

Bada horretarako arrazoirik, edo nik hala interpretatzen dut, behintzat. Aldaketa garaia bizi dugu, aldaketa asko bizi izan ditugu urte hauetan, aldaketa guztiak batera: noiz sortu zen ETB, noiz euskararen legea, noiz euskaltegiak, noiz euskararen erakunde nagusiak, noiz hasi zen euskara batua indartu sozializatzen? 80ko hamarkadan. Gaur egun normalizat jotzen ditugun gauza askoren abiapuntua orduan dugu. Orduan gazte ginenok eta orduan heldu zirenek abiada eman zioten orain nahiko egonkortua dagoen prozesuari. Orain, berriaz, 2010etik honako hamarkadari begira jarri eta esan behar da 80ko hamarkadan jaiotako belaunaldi hura kalean dagoela, gurasotzen ari dira, lan mundura sartzen: ETB izan dute, euskara batua, testuliburuak, euskararen aldeko praktika, euskaldunberriak dira asko, errazago kontsumitzen dituzte gaztelaniazko produktuak euskarazkoak baino...

### Eta, hala ere...

Euskaingintza, iristen den lekura iristen da. Gure helburuak ez dira betetzen ari, asko egin da, baina frustrazioak ere baditugu. Euskara ez da erabiltzen guk nahi edo espero genuen neurrian. Ezinean ari gara arlo askotan. Bestalde, momentu sozio-politikoa berria da, krisi ekonomikoa ere hor da, etorkin berriak etxean ditugu... Alegia, 80ko hamarkadan baliagarri zitzaizkigun kontzeptu eta eskemak ez zaizkigu baliagarriak gaur egun. Egoera sakon aldatu da: gure hizkun-



## Manttangorri

ikasi, hezi, ezagutu, dibertitu, amets egin... JOLASTUZ

- Adin guztietarako kalitatezko joku eta jostailu hezitzaileak ditugu.
- Pardelezko-opilak, joku kooperatiboak, estrategikoak, famili artekoak, kartak, puzzleak, ibilgailuak....
- Atal berria: "Emakumearen txokoa".

Herrikobarra, 19  
 20500 ZARAUTZ  
 ☎ 943 83 11 87 / 650 442 437  
 www.manttangorri.com



Jarraitu gure berriak:





## AZKEN HITZA

### Ilusioa

**"Hurrengo hamarkadek izan behar dute euskararen aurrerabidea atzeraezin bihurtuko dutenak. Horretan, denok gara beharrezko, denok egin behar dugu urrats bat aurrera, ilusioz, eta ondo bizitzeko asmoz. Euskaraz bizi nahi dugu, alai eta eroso bizi euskaraz. Euskara da gozamina, jende interesgarria, egitasmo zoragarria. Ilusioz eta irribarretsu, aurrera!"**



tza komunitatearen ezaugarriak erabat ezberdinak dira. Testuingurua ere erruz aldatu da: gure gaztetan euskara eta gaztelania entzuten ziren herriko plazan; gaur egun, 8-10 urteko neska-mutilak gaztelania, euskara, ingelesa eta besteren baten berri ere badu! Elebakartasuna deskatalogatuta dago, baita elebitasuna ere, eleaniztunak dira gure seme-alabak, bai musika kontsumoan, bai sare sozialetan. Kontzeptu berriak behar ditugu gaurko egoera ulertzeko, aurrera egiteko.

#### Eta nola egin aurrera?

Askoz ere konpromiso sozial eta politiko handiagoa behar dugu, akordio handiagoa normalizazioaren inguruan. Bestelako kontzeptu, dinamika eta entendimentuak behar ditugu. Aurrera begira, jauzi kualitatiboa egiteko garaia dugu. Hor bada irudi bat, Jon Sarasuak *Hiztunpolis*an eman duena: botila erdi hutsarena, eta Jonek dio: "Baina botilak zuloak ditu; betetze erritmoa mantentzen ez bada, gehiago irtengo da, sartu baino!". Kontuz, beraz, esparru batzuetan irabazten eta beste batzuetan galtzen ari baikara. Eredu geografiko batzuetan, eremu sozial batzuetan, irabazten, eta beste batzuetan

galtzen ari gara, eta horretan izango gara ondoko urteetan. Aurreikuspen handiagoak jarri genizkion geure buruari, erreferentziarik ere ez genuelako, eta kontuz ibili behar dugu, gehiegizko frustrazioak ez baitira onak inoiz izan.

**Ruper Ordorikaren kantua: "Egin kontu / bost mila zazpiehun / kultura ezberdin / desagertu dira historian. / Esaten dutenez / aurrerabidea / elkar jan horretan / oinarritu da mendeetan zehar"...**

Zazpi mila hizkuntza munduan. Hizkuntza erraldoiak, hamabi. Horiek beste maila batean ari dira jokatzten. Bestalde, estatu hizkuntzak ditugu; horiek abantaila handiak dauzkate, baina estatu hizkuntza guztiak ere ez daude gu baino hobeto. Are gehiago, zenbait alditan, gu estatu hizkuntza batzuk baino lehenago iristen gara; Wikipediako artikulua kopuruan, adibidez. Gizarte honetan bada gutxiengo aktibo bat, gutxiengo horrek ekarri gaitu hona, eta gu horren partaide gara. Gutxiengo aktibo hori benetan aktibo da Euskal Herrian, eta horrela lortu dugu lortu duguna. Bada, munduko hizkuntza gutxituen artean –katalana aparte–, euskara da erreferentzia nagusia! Erreferentzia Europako hizkuntza gutxituentzat eta munduko askorentzat! Erantzukizuna dugu komunitate eta herri bezala, eta garrantzitsua da ideia hori ere hurrengo belaunaldi transmititzea. Hemendik aurrera, belaunaldi bakoitzak erabaki beharko du euskara mantentzen duen ala ez, eta zein neurritan, denok eleaniztun izango baikara, neurri handi edo txikiagoan. Giroak eta garaia erabakia baldintzatuko du, baina belaunaldi bakoitzak hartuko du erabakia. Eta erabaki horretan, kontuan hartu beharko dugu erreferentzia garena beste komunitate askorentzat, eta guk ez badugu aurrera egiten, gurekin batera tropel osoa joango dela atzera. Horixe dugu erantzukizun erantsia. ■



**INDATE-BERRI Nekazaletxea**

Indate - Berri nº12 Urdaneta Auzoa - 20809 AIA  
 ☎ 667 863 023 - 943 133 058  
[www.agroturismoindateberri.es](http://www.agroturismoindateberri.es) - [www.escapadarural.com](http://www.escapadarural.com)

# Konpromisoa tokiko-ekoizleekin



*Hemengoak  
gara eta tokiko  
produktuen  
kontsumoa  
sustatzen dugu.*

*“Eroskik bertako produktuei emandako  
babesarekin oso gustura nago: baserritarrei  
laguntzeaz gain ekosistemaren babesa eta  
inguruaren garapena ere bermatzen ditu”*

Jose Antonio Bilbao  
AXPE SAGARDOTEGIKO SAGARDO ETA TXAKOLI  
EKOIZLEA



[www.eroski.es](http://www.eroski.es)



**EROSKI**

*zurekin*



# Sanjuandegi auzoa biziberritzen

Festak antolatzetik harago joan behar zutela erabaki zuten Azpeitiko Sanjuandegi auzoko bizilagunek, duela sei urte. Gogoeta horren harira sortu zen XJ Auzolanean elkartea: auzoa biziberritu eta euskalduntzeko ekintza kulturalak burutzen dituzte.

| LIDE HERNANDO |

DUELA 40 BAT URTE sortu zen Azpeitiko auzorik handiena den Sanjuandegi. “Lehendik ez zegoen ezer hemen, baserri bat izan ezik. Sortu eta berehala, Extremaduratik jende asko etorri zen hona bizitzera”, dio Ainara Larrañagak, elkarteko kideak, “horren ondorioz, auzoaz dagoen irudia oso erdalduna izan da beti, nahiz gaur egun bigarren generazioko haur gehienak Azpeitiko euskal gizartearen guztiz integratuta dauden”.

Duela sei urte, urtero legez festak antolatzeko elkartu zirenean, auzoaren bizitza kulturalari astindua emateko asmoa piztu zitzairen. Ordura arte, elizak uzten zien lokal batean biltzen zen jai batzordea, baina sanjuandegitarrek argi zuten horrelako proiektu bat gauzatzeko ezinbestekoa zutela bizilagun guztiena izango zen lokala lortzea. “Udalarekin zenbait tirabira izan ostean, auzotar batzuek lokal baten alokairua ordaindu zuten, eta hurrengo urteko festetan lortutako diruarekin itzuli zitzairen dena. Horren ondoren, Udalak onartu zuen lokalaren alokairua ordaintzeko diru-laguntza bat ematea”, dio Aitor Belokik, elkarteko kidea bera ere.

Orduan hasi ziren ekintzak antolatzen; horietako batzuk gaur egungo egutegian finko bihurtu dira, hala nola auzoko jubilatuekin egiten duten kantu-poteoa, Ume Eguna edota bigarren eskuko jostailuen azoka, aurten artisautza azoka ere bihurtuko dutena. “Finkoak ez diren ekintzak ere egiten ditugu, kultur arteko asteburua estremadurar eta euskaldunen artean adibidez, edota ibaia garbitzea herriko beste eragile batzuekin elkarlanean”, kontatu du Larrañagak.

Azpeitiko Elkar-ekin kolektiboarekin batuta, euskara bultzatzeko proiektu bat egin zuten XJ Auzolanean elkartekoek: *Hesiak Gainditzen* dokumentala proiektatu zuten, baita ostera egilearekin, Jon Maiarekin, hitzaldia antolatu ere. “Horrekin batera, auzoan mintza-lagun programa martxan



Elkarteak urtero antolatzen duen Ume Egunean 200 bat haur biltzen dira, hainbat balore kontuan izanik aisialdiko ekintzak burutzeko.

jartzea erabaki genuen”, dio Belokik. “Auzoko lokalean ematen dira klaseak, erretiratutako irakasleen eskutik eta borondatez, eta estremadurar asko gerturatzea lortu dugu”.

## Hurrengo erronka, gai sozialak lantzea

Apurka-apurka, XJ Auzolanean elkartekoek oihartzuna lortu dute herrian. “Festek inoiz baino indar handiagoa hartu dute eta Udalak berak ere auzoan egin beharreko aldaketa batzuen aurrean iritzia eskatu izan digu”, dio Belokik. Aurrerantzean, arlo kulturalaz gain, gizarte gaiak ere jorratu nahi dituzte.

Auzolanak proiektuari ekarri dion onura zein izan den galdetzean, harritu egin dira. “Auzolana ez da aukera bat izan. Gu auzotarrak gara, eta ez genuen hau antolatzeko auzolanean aritzea beste modurik ikusten. Auzoa biziberritu nahi baduzu, ezinbestekoa eta logikoa da auzotarren inplikazioa”. ■





# Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?

Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena,  
lagunarena, lagunaren lagunarena.

Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuetarako erreferentzia puntua.

Nor garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua.

Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua.

Interneten bereizten gaituen puntua.

Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua.

Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarraia izango dena.

Anima zaitetz eta sortu zure .eus domeinu-izena.

Informazio gehiago **[www.domeinuak.eus](http://www.domeinuak.eus)** webgunean

**Hemen duzu zure puntu berria**



ROSA GARCIA  
KALERATZEAK STOP

# «Bankuei etxe hutsak desjabetu ahal izatea atzera bota dute EAJk, PPk eta UPyDk»

Hipoteka ordaintzeko zailtasunengatik bankuek jendea etxetik bota ez dezaten, lau urte borrokan daramatza Kaleratzeak Stop plataformak. Baina kaleratze ugari saihestea lortu duten arren, azken urte eta erdian areagotu egin dira etxegabetzeak Euskal Herrian. Plataformako kide da Rosa Garcia, Gipuzkoan.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Urteak daramatzazue borroka, kontzientziazioa eta presioa egiten. Inpunitatez jokatzeko jarraitzen dute bankuek ala aurrerapausoak eman dira kaleratzeak eteteko?

Bankuek inpunitatez jokatzeko jarraitzen dute, legeak ematen dielako inpunitate hori. Bankuek eurek eraikitzaileen eskutik sortutako eta gobernuek sustatutako krisi finantzarioak dirurik gabe utzi ditu herritarrak, baina legeak ez ditu fede oneko zordun horiek babesten. Hala ere, epaitegietan egindako borrokari esker, abokatu eta epaile ugarirekin elkarlanean, etxea enkantean jarri eta bertan bizi direnak kaleratzeko bankuek jartzen dituzten salaketak gelditzea lortzen ari gara, Europako Auzitegiko epaien bidez. Eta kaleko borrokari esker, bankuen joko zikina eta genozidio ekonomikoa azaleratzen ari gara. Bankuaren eta herritarraren arteko negoziazioan gure elkartea ere tartean bada, bankuek jarrera leundu ohi dute, hain justu salaketa publikoa eta banku aurrean protesta elkarretaratzeak saihestu nahi dituztelako. Arazoa da herritar asko eta asko ez direla gurekin harremanetan jartzen, eta kasu horietan, kaleratze prozesua autopista irekia da, legeak horretarako ematen duen erraztasunagatik.

**“Sakoneko arazoa da alokairu sozialerako 83.000 eskaera daudela EAEn, eta 15.000 etxeren eskaintza. Gehiago lortu ahalko genituzke, bankuen etxe hutsak erabiliz gero”**



Etxebizitza eskubidearen aldeko aktibista nekaezina da Rosa Garcia.

Oposizioaren eskaerari erantzunez, berriki datuak aurkeztu dituzte Eusko Legebiltzarrean: etxea enkantean jarri eta bertakoak kaleratzeko 1.127 prozesu abiatu dituzte bankuek 2013-2014 artean. Prozesu horietako bostetik bat Kutxabankek abiatu ditu.

Bai, eta kutxa botere publikoen esku egonik, politikarien ardura agerian geratzen da, EAJ-rena batik bat, baita administrazio kontseiluetako bazkide PP eta PSE-rena ere. Orain, privatizazioarekin hamabost patronok kontrolatuko dute Kutxabank eta inpunitate are handiagoz jokatuko dutela uste dugu.

Datu berdinen arabera, Eusko Jaurlaritzak berak eta Alokabidek zuzenean kaleratu dute jendea, babes ofizialeko etxebizitzetatik.

Alokabideren arazoa da alokairuan dagoen pertsonaren edo familiaren egoerara ez dela

KALERATZEAK STOP DONOSTIALDEA



EDUARDO SANZ NIETO



ARGAZKI PRESS / ARITZ LOTOLA



EKINKLIK



GASTEIZ ANTIFAXISTA



Goitik behera, ezker-eskuin: Urtarrilean, Iruñeko Ezkaban bizi zen emakume bat eta Down sindromedun semea etxetik bota zituzten. Pasa den ekainean, Algortako familia bat kaleratu zuten eta argazkian familiakideetako bat ageri da, etxeko leihotik manifestariari eskerrak ematen. Herritarren presioak Orkoingo bizilagun baten kaleratzea gelditzea lortu zuen. Etxebizitza eskubidearen aldeko elkarretaratzea Gasteizen.

egokitzen eta urte batetik bestera kuota bera mantentzen dela, tarte horretan lana edo gizarte laguntza galdu arren, adibidez. Zordunak bota eta berriak sartzen ditu Alokabidek, eta sakoneko arazoak hor dirau: alokairu sozialerako 83.000 eskaera daude EAEan, eta 15.000 etxeren eskaintza baino ez. Alokairu sozialerako etxebizitza gehiago lortu ahalko genituzke, bankuek duten etxe huts andana erabiliz gero. Jendea kaleratzen bankuek lortutako etxeak desjabetu eta alokairu sozialerako erabili ditzake botere publikoak, Etxebizitzaren Legearen bidez, eta hala egiten da adibidez Andaluzian edo Katalunian, baina EAEk oraindik ez du Etxebizitzaren Legerik. Areago, berau prestatzen ari dira eta EH Bilduk eta PSEk legean neurri hori jasotzea proposatu dute, baina atzera bota berri dute EAJ, PP eta UPyDk. Neurria funtsezkoa da etxebizitzaren arazoari konponbidea eman ahal izateko eta hipotekak eta kontrolak gabeko alokairuak ordaindu ezin dituzten herritarrek —gero eta gehiago direnak— laguntzeko, baina badirudi Kutxabanki dituen milaka etxe hutsak ken-

**“Eraikitzaileak etxe asko saldu ezinik geratu direnean, zorraren ordainetan etxe horiek onartu dizkiete bankuek. Familiekin aldiz, ez dute halakorik egiten”**

tzearen beldur direla. Eusko Jaularitzak interes orokorraren zerbitzura egon beharko luke, baina...

### Zein puntu hartu beharko lituzke kontuan legeak?

Etxebizitzaren Legea beharrezkoa da, lehenbailehen, fede oneko zordunen etxeak enkantean jarri eta bertakoak kaleratzeko prozesuak debekatuko dituen. Legeak, halaber, etxebizitza hutsak dituzten bankuak zigortu beharko lituzke, edo desjabetu eta erabilera publiko eman beharko lieke etxe huts horiei. Gure aspaldiko beste eskaera bat da hipoteka ordaindu ezin duenak etxea bankuari ematearekin zorra kitatzea (eta ondoren pertsona hori alokairu sozialera bideratzea).

Bada, eraikitzaile handiei dirua utzi dize bankuek eta eraikitzaileak etxe asko eta asko saldu ezinik geratu direnean, zorraren ordainetan etxe horiek onartu dizkiete bankuek. Familiekin aldiz, ez dute halakorik egiten, eta gainera administrazioak dio ezin duela ezer egin Espainiako Estatuko legeak ez duelako uzten, lege horrek zehazten dituen bal-

tzearen beldur direla. Eusko Jaularitzak interes orokorraren zerbitzura egon beharko luke, baina...



dintzak (etxebizitzaren salneurriak tarteko) zeri-kusirik ez dutenean gure errealitatearekin! Lege propioa egin daiteke, baina hara, interes finantzarioak tartekatzen direnean autonomiarik ez dugu nahi antza, Espainiako aginduak zehatz-mehatz jarraitzea nahiago. Etxeetan argindar mozketarik ez egitea ere eskatzen dugu, energia enpresak eurak ari direlako, tartean Euskal Herriko Iberdrola enpresa, argindarra ordaintzen ez duten familien etxeak enkantean jartzen. Neguan argindarra moztea debekatuta dago Europako herrialdeetan, bankuari etxea ematearen ordainetan zorra kitatzea onartua dago... hemen izan ezik, eta gauza asko erkidegoko administrazioak alda ditzake, ez dezatela aitzakia gisa Espainiako legegia erabili.

**Etxea ematearen truke zorra kitatzea, kasuz kasu epaitegietan lortzen ari zareten borroka da, dena den.**

Bai, pixkanaka-pixkanaka, guregana etortzen direnen kasuan behintzat. Kontua da, hain juxtu hipoteka gehien eman dituen erakundeak, Kutxabankek, ateak guztiz ixten dizkiola

**“Bost kaleratze prozesutik bat Kutxabankek abiatua da EAEn. Hipoteka gehien eman dituen erakunde honek ateak guztiz ixten dizkio etxearen truke zorrak kitatzeari edota negoziatzeari”**

etxearen truke zorrak kitatzeari edota alokairu soziala negoziatzeari. Nafarroan, Caixabank –gogoratu Nafarroako Kutxa desagertu eta Caixabankek bereganatu zuela– aldekoagoa da. Herriarren ezjakintasuna baliatuz bankuek hipoteka kontratuetan ezarritako klausula neurrigabeen aurka ere ari gara eta abal-emaileak jomugan jartzen dituzten klausula lotsagarriak atzera botatzea lortzen ari gara epaitegietan.

**Datu eta saltsa legal honen guztiaren atzean, pertsonak daude...**

Bereziki lazarria da seme-alabekin etxetik botatzen dituzten emakumeen kasua. Izan ere, ikusten ari gara sarri bikotea banandu eta senar ohiak etxea ordaintzeari uzten diola, eta bankuari bost axola zaionez

ordaindu ez den hipoteka zatia zeinena den eta zeintzuk bizi diren etxe horretan, kale gorrian uzten ditu emakumea eta umeak. Garai batean seme-alabek etxea erosteko abala eman eta seme-alaba horiek orain hipotekarekin arazoak dituztenean abal-emaileen aurka egiten ere ikusten ditugu bankuak, hirugarren adinekoen aurka... Izugarria da. ■



**duran...go!  
goazen!**

Euskara Saila

[www.durango-euskaraz.net](http://www.durango-euskaraz.net)



**DURANGO**  
Udala • Ayuntamiento







INIGO AZKONA

**Asier  
Blas  
Mendoza**



EHUKO  
IRAKASLEA

## Legalitate trantsizioa Katalunian

KATALUNIAKO GOBERNUAK indarkeriaren monopolioaren transferentzia demokrati-koa lortu nahi du jatorrizko (Espainiako) Estatuaren legalitatearen baitan. Baldintza horietan, Estatu berriaren nazioarteko aitortza automatikoa izaten da. Hala ere, erreferenduma baimentzen duten jatorrizko estatuak abantaila handiak dituzte sezesio prozesua geratzeko, besteak beste hiru arrazoiengatik:

A) Jatorrizko Estatuak erreferenduma-  
ren baldintzak eta denborak negoziatzeko  
abantaila du. B) Estatu batek erabakitzeko  
eskubidea onartu badio lurralde bati, erre-  
ferendumean botoa eman behar dutenen  
arteko parte batek independentziak sor-  
dezakeen ezeگونkortasun ekonomikoaren  
aurrian ezezkoaren alde egin dezake,  
sezesioa gauzatzeko denbora izango duela  
pentsatuz betiere. Eta C) Jatorrizko Esta-  
tuak estatu aparatu osoa dauka bere zerbi-  
tzura erreferendumaren kanpainan eta  
aurretik bere aldeko posizioak sendotzeko.

*Geroz eta beranduago adosten badu  
Espainiak erreferenduma egitea Katalunian,  
orduan eta ahulagoa izango da bere posizioa  
agenda kontrolatzeko eta sezesioa  
saihesteko*

Bestela esanda, erreferenduma hasiera-  
tik adosten bada ez da egongo muturreko  
tentsio egoerarik eta horrek zaildu egiten  
ditu independentziaren aldeko posizioak  
indartzea. Katalunian, ordea, gertatzen ari  
dena kontrakoa da, tentsioa igotzen ari da  
nazio izaera aitortzeko eskaera ukatu diot-  
elako eta ondoren erabakitzeko eskubi-  
dea ukatu nahi izan diotelako. Espainiak  
geroz eta beranduago adosten badu erre-  
ferenduma egitea Katalunian, orduan eta  
ahulagoa izango da bere posizioa agenda  
kontrolatzeko eta sezesioa saihesteko.

Azaroaren 9ko kontsulta zerbaitengatik  
izan bazen arrakastatsua, desobedientzia  
zibileko ariketa neurtua izan zelako da,  
mugatua baina oso adierazgarria lortu  
zuen babes mailarengatik. Botere espar-  
ru soberanoa irudikatu eta egikaritu zen

Espainiako Estatuaren kontroletik kanpo.  
Kataluniako jendartearen parte esangura-  
tsu batek bozkatu egin zuen Espainiako  
legeek eta erakundeek agindu zuten debe-  
kua desobedituz.

Hala ere, Espainiako Estatuak oraindik  
tresna ugari ditu bere esku Kataluniako  
desanexio prozesua oztopatzeko. Hautes-  
kunde “plebiszitarioen” aurretik errefe-  
renduma adosten badu, legalitate katala-  
nerako trantsizio bidea geratu eta  
espainiar legalitatearen parametroetara  
buelatzeko gaitasuna izango luke. Baina  
ez dirudi horrela izango denik. Hautes-  
kundeen ostean eta balizko alde bakarre-  
ko independentziaren aldarrikapenaren  
aurretik egiten badu, Espainiak oraindik  
agenda eta erreferenduma kontrolatzeko  
boterea izango du partzialki, nahiz eta oso  
ahulduta egon. Berriz, Kataluniako Esta-  
tuaren aldarrikapen sinesgarriaren ostean  
negoziatzen badu, nazioarteko presio  
pean negoziazio orekatuagoa emango  
litzateke bi gobernuen artean eta Katalu-  
niako legalitate berria indartuta legoke.

Hiru aspektu nagusi agertu daitezke  
negoziaketa batean: gutxieneko partaide-  
tza eskatzea erreferendumean, desanexioa  
gauzatzeko eta denborak (datak) zehazte-  
ko gehiengo bereziak behar izatea. Gogo-  
ratu Eskozian edo Montenegron gertatua,  
jatorrizko estatuentzat bi desanexio pro-  
posamenak merkeak izan arren, baldin-  
tzak inposatu zitzaizkien. Eskozian nazi-  
onalistek hiru erantzun posible nahi  
zituzten, baina Londresek data eta bi  
erantzun inposatu zituen. Montenegron  
hiru baldintza inposatu ziren: hiru urtetan  
erreferendumik ez izatea, gutxieneko par-  
taidetza %50 izatea eta desanexioa gauza-  
tzeko baiezkotzeko botoek %55eko langa gain-  
ditzea.

Katalunia ez dago prest Abkhaziak edo  
Kosovok bizi duten linbo ezeگونkorrean  
egoteko, negoziatuko du nahiz eta inde-  
pendentzia aldarrikatu. Espainiak aldiz,  
galtzeko hainbeste duenez,  
itsututa dago. Alabaina nazio-  
arteko presioak negoziatzera  
behartuko du lehenago edo  
geroago. ■







Danele Sarriugarte

♦ IDAZLEA

## Ni banoa

EZ NAIZ SAIATU ere egingo. Iskin egiten. Gaiari. GAIARI. Ebentoari. Munstroari. Eta, hortaz, nire pendulu-izaera onartu, eta kontua ez ebitatzetik harago, erdigunera ekarriko dut euskal kultura delako hori zentro bilakatzen den garaia. Albistegien ardatz, gaztelaniazkoena ere, @aranagoiri-ren bertxiokatzek kanpaina masibo eta batzuetan beldurgarri (jendeak botatzen dituenak ikusita) horietako baten merezidun (#kilolitroetan egin zuenaren ildotik)... Durangoko Azokaz ari naiz, noski.

Beste lurralde batzuetan barrena ibiltzeko asmoz nenbilen, baina ordenagailuaren aurrean ipintzerako, edo, ordenagailuaren aurrean ematen ditudan ordu luzeetako puska bat honen idazketari eskaintzerako, beste norbaitek jada esanak zituen nik esan asmo nituenak; gainera, eta larriagoa dena, nik erabili asmo nituen erreferentzia berberetara baliatu zen nik idatzi asmo nuena azkenean kaleratu zuena, eta horrekin bai akabo: zein naiz ni aipamenik gabe? Orduan, mirari baten antzera jazo zitzaidan, jaso nuen email hura: Azokaren atariko alean argitaratzekoa zen, hain justu ere, nire Zirta.

Aitzakia tematikoari heldu behar nion, bai ala bai. Dena dela, arrazoiren bat behar nuen hautu hain ez-originala zuzitzeko, bazeudelako okasioa kudeatzeko beste-lako moduak ere; adibidez, besterik gabe, kasu zipitzik ez egitea, edo, bestela, plaza ezezagunagoi buruz jardutea, esaterako BALA Bilboko Arte Liburuaren Azokari buruz (abenduen 11tik 14ra arte-liburuak, fanzineak, tailerrak eta kontzertuak), edo Emakume Abertzaleon VI. Topaketa Feministez (Ondarroan, abenduaren 13an, mintzal-diak eta hausnarketak). Azkenean, hizpidea berez nahiko estandarra zenez, erabaki nuen, alderdi formala irauli ordez, edukia eta forma banaezinak izatearen kontu hori probestu eta artikulua erabat tradizional eta aurreikusgarriki planteatzea, alegia, hitzorduari

hutsik ez egiteko arrazoiak ematea, honako galdera ezin tipikoagoa abiapuntu: zergatik demontre joan beharko luke idazle-gai batek Durangora, *neskagazte* bat izanda?

Bada, hasi eta buka, literatur jendea bene-benetan ezagutzeko aukera izango duelako. Eta ez beti aipatzen den topiko hori dela-eta, hots, standean liburuak sinatzen/saltzen egongo direnez eurekin aurrez aurre hizketalditxoak egiteko paradarengatik, ezpada Durango delako euskarazko *literaturlari* gehienak zinez garrantzitsuak izango balira bezala

tratatuak izaten diren okasio bakarrene-takoa, gainontzean okindegira edo sendagilearengana joaten direnean,

edo nortasun agiria erakutsi behar izaten diotenean bulego ofizialeko langileei, ez baitute sekula errekonozimenduzko bekain-altxaldi edo hitzik adi-tzen, eta hiruzpalau egunetako aitortza durangarrak, euren tribu-kideez inguratuta, zuzenean jotzen baitie ego minduan, sorbaldak zuzenarazten dizkie eta solasaren kontinentzia laxatzen, batez ere basoa eskutan dutela harrapatzen baditu gure balizko *neskagazte* idazlegaiak.

Bai, Azoka abagune aparta izango da *neskagazte* letretan hasiberriarentzat, badaezpada despistatuta bazebilen eta kontrakoa sinesten bazuen, egiaztatze literatoen elitea ere gizonenez eta gizonki osatuta dagoela funtsean. Aukera itzela, halaber, trazu zaharren batzuk batzeko eta, ondoren, horiekin norbaiti xantaia egiteko, edo, bestela, egon ere badauden konplizeekin elkartuta, euskal literaturaren mundu-ko konbentzio-

ak, hipokresia eta makillatutako matxismoa lau haizetara salatze. Pikutara bidaltzeko. ■



Antton Olariaga



Iván Giménez

KAZETARIA ♦



## Gatazkaren alde

GATAZKARIK GABEKO gizarte bat diktadura besterik ez da. Gatazkak, hala ere, “prentsa txarra” dauka: beldurra, indarkeria eta segurtasun eza burura ekartzen dizkigu. Gatazkaren alde egotea talibanengandik edo terrorismotik oso hurbil egotearen gauza bera omen da. Gatazka kontzeptu gaiztoa, erasokorra, biolentzia eta aldebakarrekoa bezala ulertzen da.

Egia da: eguneroko bizitza erosoagoa da beste guztiak bezala jokatzeko badugu, eta funtsezko aferetan ados gaudela adierazten badugu (batzuetan isiltzea nahikoa da), betiere gizartearen bizikidetzat apal eta lasai baten alde. Askotan, Gabonetako senide afarietan bezala jokatzeko dugu arlo publikoan: giro ona eta baketsua ez apurtzeagatik, amore ematen dugu. Tentagarria da korrontearen barnean gure burua joaten uztea. Askoz nekagarriagoa, aldiz, izokina bezala ibaian gora abiatzea.

Hala ere, horrekin konformatzeak badu prezio garesti bat, Tony Judt historialariaren esanetan: “Kontsentsuaren demokraziak ez du demokrazia bezala gehiegi iraungo”. Azken finean, zer da kontsentsuaren demokrazia bat? Gauzak dauden bezala jarraitzeko joera politikoa, gehien-ego isila tresna bezala erabiliz.

Honen eredurik perfektuena, berriro, Nafarroa da. Egunero entzuten ditugu kontsentsuaren aldeko adierazpenak, egonkortasuna eta berpizte ekonomikoa

zaku berean sartuz: hori dena lortzeko gako magikoa itun handi bat omen dela, “diferentzia politikoak alboratuz, interes orokorren mesedetan”.

Alabaina, hemen eta mundu osoan, desadostasuna eta uko egitea dira gizarte zabal baten bermeak. Gehiengo apal eta akritiko horren iritziaren aurkako herritarrek behar ditugu, benetako demokraziaren aldeko lana, hain justu, hau delako: oposizio ideologikoa, erroturik dauden printzipioak kolokan jartzea.

Erronka berriei erantzuteko energia ez dugu aurkituko betiko ideien zirkulu itxietan, edo kontsentsu politikora deituz.

Azken finean, desberdintzen gaituenak ematen digu banakako identitatea. Eta gizartean non gauden zehatz azaltzeak gure interesa markatzen du, interes orokorren gezurra azaleratuz. Interes ezberdinen talka horren joko zelaia gatazka da. Eta edozein gatazkaren aterabidea indar korrelazioaren arabera erabakitzen da.

Gauzak horrela, kontsentsua gatazka saihesteko trikimailu bat baino ez da, ahuleziaren seinalea. Horregatik, gatazka demokratikoaren bandera hartzen duena aurrera doa, beldurra arerioen aldera igaro dela agerian utziz. Eta kontsentsu baten eske dabilzanak kikilduta daude, haserretuen itxura egiten badute ere. ■

*Kontsentsua gatazka saihesteko trikimailu bat baino ez da, ahuleziaren seinalea*



DANI BLANCO



**Kattalin Miner**

♦

KAZETARIA

## Normaltasun testa

IRUDIKA EZAZU murru bat. Irudika ezazu bertan idatzirik NORMALA hitza eta jar zaitez ahalik eta gertuen. Eta orain pentsatu ondorengo baieztapenetan, eta zure burua baieztapenean sartzen bada, geratu geld, sartzen ez bada, eman pauso bat edo bi, atzera:

Nire sexua nire generoarekin bat dator. Nire aukera sexualak “gehiengoarekin” bat datoz. Nire itxura, estetika, gorpuzkera, gizon/emakume multzoetan sartu daitezke. Nire arraza edo azalaren kolorea, ingurura begiratzen dudanean ikusten dudaren antzekoa da. Bikotea dut. Nire hizkuntza gehiengoak darabilena da. Nire

egoera legala, ba hori, legala da. Ni, nire generokoak ez diren horientzat desiragarria naiz. Ligatu egiten dut. Nire gorputza “funtzionala” da, hau da, dibertsitate gabekoa. Nire adinarekin bat datorren bizimodua daramat. Ez naiz lodia, ez lodiegia behintzat. Neska banaiz, ile luzea dut, mutila banaiz, motza. Ez didate inoiz uzkitik eman. Nire ikasketa maila altua da. Aita eta ama batera bizi (izan) dira. Beti izan dugu diru iturririk etxean.

Jarra dezakegu. Baina geld, gaitzean. Eta zuk, nondik begiratzen diozu orain normaltasunari? ■







Jose Ignazio Ansorena

♦ TXISTULARIA

## Sarean

BI GAZTE JATOR etorri zaizkit, Sare mugimendukoak, euskal preso politikoen arazoaz nire iritzia entzute-  
ra. Bi ikuspegietatik erantzun diet: nola desio nukeen  
eta nola uste dudán joango dela.

Euskal herritar gehienok nahi genuke preso  
batzuk berehala kalera ateratzea, inoiz barruan ez  
zutela behar iritzita, eta beste guztiak pixkana askata-  
sunerako bidean ipintzea, bitartean  
hurbileko espetxeetara ekartzen  
dituztelarik. Gure historiaren orrial-  
de beltz hori erarik onenean eta  
gupidaz pasa nahi dugulako.

Nola uste dudán joango dela?  
Espainiako Gobernuak eskuen  
artean benetako bakea bideratzeko  
probestuko ez duen aukera duela  
uste dut. Bikingoek zapal dutako  
etsaiaren burua moztu eta harro era-  
kusten zuten erabateko garaileak  
zirela frogatzeko. Horixe Espainiako  
Gobernuak. Hainbeste aldetatik  
likiskeria darien zirrikituak agertu  
zaizkion Gobernuak hementxe du  
burua altxatzeko eremu ia bakarra.

Euskal Herrian ez bezala, Espainian nahikoa ongi  
ikusia.

Sare mugimenduak liburuxka argitaratu du eta  
zabaltzeko gonbitea egin. Bertan lau artikulu labur.  
Castillo Suárezek presoak laguntzeko sarea trinko-  
tzea nahi luke, horri zor zaio bere aburuz orain arte  
sakabanaketari aurre egin ahal izana. Igor Elortzak

eta Jule Goikoetxeak xehetzen dute dispartzioak  
nolako bidegabekeriak dakartzan. Eta Iñaki Lasaga-  
basterrek —besteek ere alderdi hau aipatzen dutela-  
rik— Europa eta Espainiako legedian oinarrituta,  
sakabanaketa legearen kontrakoa dela dio.

Nik ere, hainbat aldetatik —senitartekoak, adiski-  
deak, ikasle ohiak, lankideak...— dispartzioaren  
drama gertu sentitu dut. Liburu-  
aren diskurtsoan, baina, ez dut  
ekarpen eraginkorrik ikusten. Zein  
krudela den zabaltzea ongi dago,  
inor konturatu ez bada. Legearen  
aldetiko diskurtsoak eztabaidaga-  
rriak gertatzen zaizkit, muturreko  
kasuetan (gaixo terminalak...) ez  
bestetan, espetxe gutxitan euskal  
presoak batzeak euren erabilpen  
politikoa eragin lezakeela arrazoitu  
baitezake juridikoki Espainiako  
Gobernuak.

Gobernu zintzoak aukerak balia-  
tu behar ditu arazoak ahal bezain  
azkar eta ondoen bideratzeko.  
Horixe du eginkizun. Eta horrela

exijitu behar diogu Espainiako edo Frantziako edo-  
zein gobernuri. Ezker abertzale ortodoxoari eskatu  
behar zaion bezala presoak iraganean  
preso mantentzen ez jarraitzea. Beste  
guztia literatura da, zoritxarrez ez ona.

Ez gaitezen sare zaharretan katrami-  
latu. ■

*Nik ere, hainbat  
aldetatik  
dispartzioaren  
drama gertu sentitu  
dut. Sare  
mugimenduak  
argitaratutako  
liburuaren  
diskurtsoan, baina,  
ez dut ekarpen  
eraginkorrik ikusten*



WWW.EMONMUSIKA.COM

**EMON "SUA"**  
**HIRUGARREN DISKOA SALGAI**  
**—JAI ERRITMOA GOITIK BEHERA!—**

**KONTRATAZIOA IREKITA: 618 072 076**



baga-biga musika ideiak  
telef. 618 072 076 / 026  
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com

Miren Amuriza Plaza



DANI BLANCO

## Euskal Kulturgintzaren Transmisioa

1

Soka luze bat trentzatu dugu  
zentimetroz zentimetro,  
trapu zahar zein oiha berriak  
eguzkitan haizatzeko.  
Zer ote euskal? Zer da kultura?  
Zer dugu transmititzeko?  
Zenbait galdera zintzilikatu  
ditugu dagoeneko,  
ez al da hori lehen baldintza  
erantzunak aurkitzeko?

2

Zer dugu euskal? Konnotazio  
ezberdindun bi silaba.  
Beraz euskaldun, nor da euskaldun?  
Mintzo duena euskara.  
Hizkuntza bat da historia bat  
eta euskara zer da ba?  
Ez da gaurdaino biziraun duen  
iraganaren alaba,  
iraganetik honaino heldu  
izanaren emaitza da.

3

Kultura zer da? Egunkari bat  
osorik orririk orri.  
Ta kulturgintza? Gure sorkuntza  
artistikoen jatorri.  
Bide luzea egin dugu ta  
aitortza zor zaio horri;  
Arantzazutik abiatuta  
Urbiaraino etorri,  
baina oraindik urruti samar  
ikusten dugu Aizkorri.

4

Ondorengoei transmititzeko  
euskaldunok zer dugu ba?  
Lehengoengadik jasotakoa:  
hizkuntza eta kultura.  
Korrante hori da jarraidura  
ostera irekidura,  
da egotea herri txiki bat  
zabal-zabalik mundura.  
Zer gara beraz, izotz hauskorra  
edo mugitzen den ura?

5

Sarasuaren hitz ho(r)iek denak  
haizetara dakartzagu,  
dagoeneko soka ez dago  
hasieran bezain malgu.  
Eskegi dugu teoria eta  
praktika zelan daukagu?  
Egungo Euskal Kulturgintzaren  
isla baldin bagara gu,  
jakin-mina du, gaztea da eta  
emakume ahotsa du.

6

Aldiz gorputza dantzari baten  
soin mugikorra litzake,  
jai guztietan euskara hutsean  
hartu ohi duena parte.  
Izan Ziburu, Oion, Ituren,  
Barakaldo zein Lasarte,  
sua pizteko ez dago zertan  
jo Zugarramurdira arte,  
akelarrea nork bere herriko  
plazan hasi baitezake.

7

Aktore baten aurpegia du,  
antzik ez du inorenik,  
ezezagunei ere euskaraz  
egiten die lehenik,  
baina ulertzen ez badiote  
agurtzeko dioenik,  
antzezpen bako irribarre bat  
egiten die azkenik;  
“ongi etorri”-ren sinonimo da  
ta ez du behar itzulpenik.

8

Kulturgintzatik herrigintzara  
pasa nahi dugun honetan,  
sokaren bueltan bilduko gara  
hilean behin gogoetan,  
gure ideiak idatzi gura  
genituzke oihaletan,  
gero haizatu, josi, tolestu,  
nahiz zintzilik laga bertan...  
Ez daitezela behintzat geratu  
preso kajoi bazterretan. ■

**Doinua:** Azken arnasa eman nahi nuke.

Mondragon Unibertsitateak antolatutako Euskal Kulturaren Transmisioa graduondokoan jarritako sorta.

# Txutxupe

## IKUSKIZUN BERRIAREN ESTREINALDIA

Victoria Eugenia Antzokian, abenduaren 13an, arratsaldeko 17:30etan.  
Sarrerak salgai kutxabanken, interneten eta leihatilan.



### Gabonetako emanaldiak

#### Abenduan:

26an, Donostia, Casares KE.

27an, Irun, Amaia KZ.

28an, Mungia, Olalde Aretoa.

29an Bilbo, Arteria Campos

Eliseos.

30ean, Ermua, Ermua Antzokia.

#### Urtarrilean:

2an, Gasteiz, Mendizorrotza.



[txirrimirrietatxiribiton.com](http://txirrimirrietatxiribiton.com)



txirrimirrietatxiribiton



txirrimirritxir



# «Himno handien garaia da, baina pertsonen istorioak gehiago interesatzen zaizkigu»

Bi urtez Arrainentzako himnoak sortzeko abenturak kontatu ditu Morauk, izen bereko blogean. Lagunen ekarpenak aintzat hartuta, eta hamaika bertsioen ondoren, Beñardorekin batu eta 16 kantu bildu ditu disko batean. Morauk jarri ditu hezurdura eta hitzak, eta Beñardok izan du konponketak egiteko ardura, diskoan zein solasaldi honetan.

| LANDER ARRETXE BEREZIARTUA |

Sei urte igaro dira azkenekoz zerbait argitara eman zenutenetik. Zer aldatu da ordutik hona?

**Morau:** Motibazioa aldatu da, kantuak egiteko gogoia. Lehen ez bezala, orain banuen zerbait kontatzeko nahia. Nire buruari galdetu nion: zer egingo dut musikarekin? Erantzuna izan zen Beñardorekin zerbait egin nahi nuela, soila eta biluzia, distrazioarik gabekoa, eta bestelako modu batera antolatua.

**Beñardo:** Esperientzian ere irabazi dugu. Musikalki aberatsagoak gara. Urteekin batera, eta beste proiektu batzuetan ere bagabiltzala, kanta ontzeko gaitasuna handitzen da. Musikari hobeak gara gure txikitasunean.

**Morau:** Gure mugen jakitun izatea ere oso garrantzitsua da, lotsarik eta konplexurik gabe aritzea. Beldurrik gabe erakutsi dugu zer den egiten duguna.

*Arrainentzako himnoak* bloga izan da horretarako plaza. Nola etorri zitzaizun burura prozesu guztia kontatzeko asmoa?

**Morau:** Gogoeta oso sinplea da. Konturatu nintzen kantuak egiten baditut ez dela musika menperatzen dudalako edo teknika izugarria dudalako. Kantuak egiten ditut istorioak kontatzea gustatzen zaidalako. Gaur egun horretarako inoiz baino tresna gehiago ditugu; gero eta bitarteko gehiago, bitartekaririk gabe. Eta otu zitzaidan: zergatik ez dugu kontatuko musikariok sekula kontatzen ez dugun hori? Lan handia eskatzen dit kantuak sortzeak; noan kontatzera eta norbaitek ekarpenik egin nahi badu, emango diot horretarako aukera.

**“Beti dira garai interesgarriak kantautore kronista batentzat. Mundua oso lehengai ona da”**

Izan dute eraginik blogean emandako iritziek?

**Morau:** Eragin nahi izan duenak eragin du. Nabaritu dut jendea zure abestia zer iruditu zaion galdetuz gero, asko errespetatzen dutela besteen sorkuntzatik datorrena. Sortzaileok erreparoa dugu gure lana erakusteko, baina besteek ere badute gure lanean eragiteko beldurra. Lortu duguna da berrogei edo berrogeita hamar lagunek prozesu guztia oso hurbiletik jarraitzea.

**Beñardo:** Bai, baina dena dela, Morauk egingdako lana aperitifa zen oraindik. Gero ni lanean jarri naizenean hasi da musikalki kantuak moldatzeko prozesua.

Hortaz, Morauk egin du diskoaren oinarria, eta gero Beñardok orden pixka bat jarri du.

**Beñardo:** Ordena eta desordena, bai. Izan ditugu tirabirak normala den bezala, baina urte asko daramatzagu elkarrekin eta ikasi dugu elkarren alde on eta txarrak orekatzen.

**Morau:** Elkarrekin egiten dugun lan garren diskoa da, eta maila horretan, inoiz baino askatasun handiagoa eman diot. Benetan izan da elkarlana, eta hasieratik saiatu naiz, beti lortu ez arren, prebentzio neurri guztiak lausotzen eta lasaitzen. Horregatik da Morau eta Beñardoren diskoa, Morauren beste disko bat izan beharrean.

Bat-batekotasunak agintzen duen honetan, bi urteko prozesua da mahai gainean jarri duzue-na, publiko handiarengana heltzeko asmorik gabe. Korrante kontra eroso sentitzen zarete?



LANDER ARRETxea BEREZIARTUA

**Morau:** Guk gure burua ikusten dugu bere barazki propioak lantzen dituen baserritarren moduan. Lantzen ditugun tomateak ez dira denak perfektuak, ez dute plastiko eta edukiontzi perfektua, baina zaporea badute, eta guk bilatu dugun publikoa zapore hori maite duena da.

Txikitasuna, gainera, balore bat da, horrelako produktuak egiteko aukera ematen baitugu, hanka sartuz, probak eginez, esperimentatuz, baina zintzoki aitortuz gure akats eta gabeziak zeintzuk diren. Industria hankaz gora eta txikituta egonda ere, gure ingurua proiektu txiki interesgarriak josita dago. Hori da gu erakartzen gaituena.

Kronista adjektiboa jarri izan dizute, Morau, eta gustura hartzen duzu zuk. Politologoentzat bezala, badira garai interesgarriak musikari kronistarentzat ere?

**Morau:** Beti dira garai interesgarriak kantautore kronista batentzat. Mundua oso lehengai ona da beti.

**Beñardo:** Garai hauetan, behar genituzke musikari kronista gehiago, umorez eta espiritu kritikoz munduaren gazi-gozaok kontatzen dituztenak modu pertsonalean.

**Morau:** Horrek lotura du *arrainentzako himnoak* kontzeptuarekin. Egun himno eta lelo handien garaia da, baina guri behintzat kantutak egiteko beste gauza batzuk interesatzen zaizkigu: istorioak, gorabeherak, jarrerak...

Horregatik egin duzue Leteren Gizon arruntaren koplak gaurkotzeko ahalegina?

**“Edozein hizkuntzatan esanda ere, zer eta nola esaten duzun da garrantzitsuenak. Unibertsalago ez gaitu ingelesak egiten, gure burua konplexurik gabe erakusteak baizik”.**

**Morau:** Xabier Leterena garaiko gizartearen goitik beherako disezioa da. Eta zer gertatu-ko litzake Leteren begirada zorrotz hori gaur egungo gizarteari aplikatzen ahaleginduko bagina? Hori izan da nire ahalegina, bere umore, garraztasun eta zorrozatasun hori ekarri nahi nuen gure egunerokora. Kantu hori da gainera diskoan daudenetan zaharrena, buruan nuen aspalditik.

**Beñardo:** Bertsioa ere ez da, musika aldatu baitugu. Ondorio bat izan daiteke akaso.

**Morau:** Aurretik egindako zerbait baliatu dugu, baina ahal beste mantenduz Xabier Leteren zorrozatasun hori. Harekin alderatu nahi izan gabe, jakina.

Bada diskoan istorio bat kontatzeko balio duen beste kanta bat: *Arma, txio, pum*.

**Morau:** Bai, anekdota ederra da. Kantuen sorkuntza prozesua amaitua nuen hamabost kantutekin, baina orduan hainbat euskal presoren abokatuak atxilotu zituzten Bilbon. Barne Ministerioak atxilotetak egin aurretik filtratu zituen twitterren, eta sekulako zalaparta sortu zuen horrek. Egun hartan twitterreko erabil-tzaile batek erronka bota zidan, horren gaineko kantu bat egin behar nuela esanez. Amuari kosk egin eta bi egunetan idatzi nuen azkenean hamaseigarrena izan dena.

**Beñardo:** Eskerrak ez zituzten gehiago eskatu, bestela 20 kantakoa aterako zitzaigukeen.

Kanta guztiak sarean daude entzungai, baina disko fisikoak ere egin dituzue, objektuari garrantzia handia emanez, gainera.



## ERDIKO KAIERA

**Beñardo:** Bildumazale garenontzat plazera da objektuaz gozatzea, nahiz eta guk ere, MP3an entzuten dugun musika gehienetan...

**Morau:** Diskoa beti izan da objektu, baina orain objektu industrial arimarik gabea da kasu askotan. Hala ere, gero eta jende gehiagok ematen dio bere lanari ikutu pertsonala eta balio erantsia, eta hori egin dugu guk ere.

Diskoak proiektuaren ildo jarraituz egin ditugu, auzolanean, lagunartean. Guk dugun gauzarik bereziena gure nortasuna eta gure lagunena da, eta hori da diskoari eman nahi izan dioguna. Jendeak eskertu egin du gainera. Egia da abestiak sarean doan jartzeak lasaitasuna eman digula. Diskoa gutizia bat da, benetan estimatuko duenarentzat sortua.

Zure abestiak ingelesera itzuli ditu Ixiar Arto-lak, eta nahi gabe bada ere, irakurtzean beste maila bat hartu dutela iruditu omen zaizu. Horren anglofiloak gara?

**Morau:** Pop eta rock musika zaletuon ezaugarri bat da. Ohituta gaude musika ingelesez entzuten, eta nik bezala ezer gutxi ulertu arren,



**"Guk dugun gauzarik bereziena gure nortasuna eta gure lagunena da, eta hori da diskoari eman nahi izan dioguna".**

gehien gustatzen zaizkigun kantak ingelesez dira. Badago, baita ere, ingelesez denak balio handiagoa duela pentsatzeko joera, edo euskal artista batetzat musika ezin daitekeela bizibide izan... Horrek ez du zertan hala izan. Edozein hizkuntzatan esanda ere, zer eta nola esaten duzun da garrantzitsuena. Unibertsalago ez gaitu ingelesak egiten, gure burua konplexurik gabe erakusteak baizik.

**Zuzenekoaren txanda duzue orain. Nekeza da zuena moduko emanaldietarako tokia aurkitzea?**

**Morau:** Zorionez, aspaldion gertatu den fenomeno interesgarrietako bat, musika zaletasuna bultzatzen duten espazioak sortu izana da: Kafea eta Galletak, Motz taberna... Gero eta zirkuito zabalagoa dago. Toki txikiak dira, baina hori da gure ingurune naturala.

**Beñardo:** Eta antolatzaileak ere musikazaleak dira, musika estimatzen duen jendea. Asko eskertzen da hori. Musikariontzat pozgarria da, nahiz eta baldintza ekonomikoak onak ez izan, antolatzen ari denak egiten duguna estimatzen duela sentitzea. ■



## BEHI BI BLUES

### Kontrataziorako kontaktuak:

Unai Azkarate 650 854 874

Gaizka Azkarate 686 028 946

### Jarrai gaitzazu facebooken:

facebook/UnaiAzkarate

facebook/GaizkaAzkarate

**Diskoa on line erosteko  
hotsak.com webgunean  
egin dezakezue!**





# Elkarri tiraka, azkeneraino


Abenduaren 20an jokatu da Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala Miribillan (Bilbo). Zortzi bertsolari igoko dira oholtzara, beste asko bidean geratu dira. Gorka Ostolaza Potxis, Miren Amuriza, Jone Uria, Iratxe Ibarra, Gorka Lazkano eta Onintza Enbeitarekin hitz egin dugu bertsolari bakoitzaren lanketaz.

| MALEN ALDALUR |

BALDARRONTZIEN TROPELA, horrela definitu du Onintza Enbeita bertsolari muxikarrak bere entrenamendu taldea. Argi du: “Ez nituzke ezergatik aldatuko”. Beñat Ugarte-  
txea, Iñaki Iturriotz eta Igor Meñikak osatzen dute tropela, nahiz eta, Eñaut Intxaurrea eta Juanjo Respaldiza ere gerturatzeko zaizkien batzuetan. Nork bere lana du taldean Enbeitaren hitzetan, “batek gaiak jartzen ditu, besteak zer hobetu behar den esaten digu, eta besteok bertsotan egin, barre eta afaldu egiten dugu”.

Bi mikro artean bizi da Enbeita, “bi munduren artean” dio berak. Puntu bat Madrilen eta beste bat Muxikan, hala osatzen ditu bertsokak. Amaierreko legebiltzarkideak uste du hobe dela oholtzako mikroi, parlamentuko baina, “eta zer esanik ez entzulea”. Batek “txaloka” hartzen du, besteak “txistu” egiten dion bitartean. Modu xelebrean du muxikarrak txapelketa prestatzeko, han eta hemen denborarik ez, eta hegazkinean “lo” egiten du beti.

Gorka Lazkano durangarra eta Gorka Ostolaza markinarra elkarrekin “makina bat”



BIZKAIKO BERTSOLARI ELKARTEA

## Gorka Ostolaza

“Niri asko kostatzen zait plazak txapelketarako prestakuntza moduan hartzea, agian beste bertsolari formalago batzuek errazago egingo dute, baina nire bertsokera asko aldatzen da egoeraren arabera”.

aldiz trebatu dira txapelketetarako, baina oraingoan bakoitzak bere aldetik dihardu. Ostolaza hanka bat Lekeition eta bestea Santutxun duela ari da txapelketako ibilbidea marrazten. Lazkanok berriz, Durangon prestatzen du txapelketa azken bizpahiru urteetan, Unai Iturriagarekin, Igor Elorzarekin, Erika Lagomarekin eta Eneko Abasolo *Abar-  
kas*-ekin batera.

Hirugarren finalaurrekoa

Amorebieta-Etxanon, abenduaren 7an, 17:30ean, Amorebieta IV. frontoian

Arkaitz Estiballes Ormaetxea

Garikoitz Sarriugarte Onaindia

Ibon Auriagojeaskoa Garmendia

Imanol Uria Abizuri

Jone Uria Abizuri

Oihana Bartra Arenas

[www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa](http://www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa)

Bertsotako eskolan, lagun artean edo familian, aniztasunik ez da falta txapelketa prestatzeko orduan. Miren Amuriza unibertsitateko garaiez oroitu da, Maddalen Arzallusekin batera arratsalde pasa “ederrak” egiten zituen Gas-teizen bertsoaren “aitzakian”. Aurten-goan, Oihana Bartrarekin prestatu du txapelketa Bilbon: “Oihanarekin gertzen naizenean ondo pasatzen dut, ez da bertsoaren egitea bakarrik, gauza asko daude horren atzean”.

Bertsotarako lagunak baditu ere, aholkuak aitak ematen dizkio: “Batuetan entzun nahi ez ditudan gauzak esaten dizkit, baina denborarekin ohartzen naiz arrazoi duela”. Aurreko txapelketan esaterako “oldarkorago” izateko aholkua eman zion.

Gernikarrak horrela definitzen du bertsolariaren bilakaera txapelketan: “Ume zarenean dena da erraza, dena doa berez. Nerabezaroan zure bidea aurkitu behar duzu eta tiro solteak botatzen dituzu hara eta hona. Gero eskarmentua dator, eta azkenik, heldua egiten zarenean zure bidea aurkitzen duzu. Txapelketan beste berdin gertatzen da”.

## Txapelketa simulakroak

Lagunartean eta “giro onean” egiten dituzte txapelketetarako entrenamenduak. Ostolazak kontatu duenez, Markinako beste bertsolari batzuekin batera txapelketa simulakroa egin zuten Gaztetxean. Gogoratzen du lehen ere astean behin egiten zutela halako zerbait. Gai jartzailea, epaileak eta entzuleak aurrean zituztela, txapelketako ariketa guztiak egiten zituzten, “geure burua saioan kokatzeko balio du, eta kolpeak leuntzeko ere bai”.

Baina zer da txapelketa, joko ala jolasa? Badu bietatik. Hitzekin jolasen dihardute, elkarrekin jokatzeko duten bitartean. Sarri kritikatu da txapelketa, lehia kontuengatik. Enbeitak dio “txapelketaren aldekoa” dela bera; kentzen diona baino gehiago ematen diola bertsogintzari. Miren Amurizak ere ez du txapelketa jolas bat bezala hartzen, “jolas bat dela esango banu, gezurretan ariko nintzateke, txapelketa garrantzitsua da, nahiz eta ez den guztia, noski”.

“Garrantzitsua” da beraz txapelketa eta horregatik lantzen, fintzen eta prestatzen du bertsolari bakoitzak bere bertsokera oholtzara igo aurretik.

Doinuak aukeratu, errimak landu, gaurkotasan gaiak jorratu, etxeko lan ugari egiten



INIGO AZKONA / ARGAZKI PRESS

## Onintza Enbeita

**“Bruce Springsteen Bilbora etortzen denean gertatzen den fenomeno antzekoa gertatzen da txapelketarekin, batez ere, Euskal Herrikoarekin”.**



BIZKAIA BERTSOLARI ELKARTEA

## Miren Amuriza

**“Azken txapelketetan beherakadatxo bat igarri dut, kanpoko presioagatik edo barrukoagatik. Aurten berriz, ez dut presio hori sumatu, ez da nirekiko aurreko urte batzuetako itxaropenik izan eta hori lasaigarri izan da”.**

ditu bertsolariak txapelketa garaian. Bitartean, bere plazetako jardunarekin jarraitzea da ohikoa, eta gehienek ustetan “ona” da hori “eskarmentua” irabazteko. “Neurria” hartzea da garrantzitsua Iratxe Ibarrarentzat: “Prestatu bai, baina gehiegi gabe”.

Ikasturtea abiatzearekin batera ekin diote gehienek prestaketa lanei. Udaren herriz herri eta plazaz plaza hitzak dantzatu ostean, txapelketari begira jarri dira. Baina ba al du zeri-kusirik plazako jardunak txapelketa-koarekin?

Jone Uriaren hitzetan ez da “inondik inora” alderagarria. Jarrera kontua da arrazoia, haren ustez, “bertso bazkari batean bertso txar batek ihes egitea errazagoa da txapelketa batean baino, txapelketan bertso txar batek atzera bidali zaitzake”. Dena den, uste du plazak balio duela “nork bere buruarekin konfiantza hartzeko eta zer mailatan zauden jakiteko”, horretan bat egiten dute gainerakoek ere.

Ostolazak bere burua zeharo bestela ikusten du plazan eta txapelketan: “Kosta egiten zait plazak txapelketarako prestakuntza moduan hartzea, agian bertsolari formalagoek errazago egingo dute, baina nire bertsokera asko aldatzen da egoeraren arabera”.

Gaietan ere badago aldea plazatik txapelketara. Enbeitak dio plazetan, normalean, gaiak “zehatzagoak” direla, batik bat, txapelketetan bakarkako ariketan jartzen diren gaiekin alderatuta. Hori denborarekin aldatu egin dela onartzen du. Gogoan du bere lehenengo txapelketan bakarkakorako jarri zioten gaia: “40 urte dauzkazu, eta herriko gazteena zara”. Orain aldiz badaki, “berriro deitu dizu” izan daitekeela gaia, eta horrek “ariketa mental handia” eskatzen duela uste du: “Istori osoa hutsetik eraiki behar duzu”.

Gaiak orotarikoak dira, bai plazan, baita txapelketan ere, “Rajoyri, ebolari eta Kurdistani kantatu behar diezu, oso denbora gutxian”, azaldu du Enbeitak, eta haren ustez, horrek “gaurkotasanaren gaineko eza-gutza handia” eskatzen du.

Mikroaren aurrean jarri eta ideien peskizan ibitzeko minutu gutxi batzuk baino ez ditu izaten bertsolariak. Horretako, Lazkanok dio garrantzitsua dela aurrez gai bakoitzaren gaineko “gogoeta” egitea, “mikroaren aurrean zauden unean gaiarekiko duzun iritzia zein den jakiteko”.



BIZKAIKO BERTSOLARI ELKARTEA


## Gorka Lazkano

**“Batzuk bertsoetatik bakarrik bizi dira baina ez da nire kasua”.**

## Iratxe Ibarra

**“Eskolarteko finalaren bezperan inoiz amestu dut oholtzara irten eta zuri gelditzen nintzela”.**

BERTSOA.COM



GETXOSARRI.BLOGSPOT.COM

## Jone Uriak

**“Besteen saioak entzutera joaten gara, denbora gehiago eskaintzen diozu bertsoari baina ez errutina aldatzeko adina”.**

Plazako jardunak gero eta indar handiagoa du Euskal Herrian, baina txapelketak azken urteetan izan duen gorakada ukazina da. “Ni ere han izan nintzen efektua” deitu dio Enbeitak. “Bruce Springsteen Bilbora etortzen denean gertatzen den fenomeno antzekoa gertatzen da txapelketarekin, batez ere, Euskal Herrikoarekin”, esan du. Batzuetan bere buruari galdetzen dio finala zer “produktu mota” bihurtu ote den, baina kanporaketa batean Mauleko pilotalekua goraino beteta ikusteak Barakaldon “moda kontuagatik” etorritako lau jasatea merezi duela uste du.

### Ametsetan ere bertsotan

“Mikromundu bat sortzen da txapelketaren bueltan”. Hala uste du Ostolazak: “Txapelketa hurbildu ahala, gai bakar bihurtzen da”.

Hala ere, ez da txapelketa garaian ametsetan bertsotan egiten duen horietakoa, edo hala uste du behintzat, ez baita egindako ametsez gogoratzen. Ibarrak, berriz, aitortzen du baietz, inoiz gertatu zaiola: “Gaztetxoa nintzen gehiagotan gertatzen zitzaidan, eskolarteko finalaren bezperan, inoiz amestu dut oholtzara irten eta zuri gelditzen nintzela”.

Orokorrean, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa hasi denetik haien eguneroko bizitza ez da gehiegi aldatu. Jone Uriak esan du “oso aldaketa gutxi” nabaritzen dituela: “Besteen saioak entzutera joaten gara, denbora gehiago eskaintzen diozu bertsoari, baina ez errutina aldatzeko adina”. Antzeko iritzia du Ibarrak ere, egunerokoa ez aldatzen ahalegintzen da eta betiko legez kirola egiten, horrek txapelketa “lasaiago” hartzen laguntzen dio.

Lazkanoren kasuan aldiz, aldatu da eguneroko jarduna. “Batzuk bertsoetatik bakarrik bizi dira, baina ez da nire kasua”, bere bizi-modua nolabait “eten” egin behar duela esan du txapelketa garaian, “bertsoari denbora eskaini ahal izateko”.

### Presioak: kanpokoak eta barnekoak

Ba ahal dago presiorik txapelketan? Presioa egon badago, bai kanpokoak, baita barnekoak ere, hala baieztatu dute gehienek. Amurizak dio “lasai” aurkeztu dela aurtengo txapelketara, aurreko urteekin alderatuta “kanpoko” presio gutxiago eduki duela esan du: “Azken txapelketetan beherakadatxo bat igarri dut, kanpoko presioagatik edo barrukoagatik. Aurten berriz, ez dut presio hori sumatu, ez da nirekiko aurreko urteetako itxaropenik egon eta hori lasaigarri izan da”.

Jone Uriak ez du presio handiegirik sentitzen, guztiek “aukera antzekoak” izango dituztela uste du. Dena den, bere buruari jarritzen dion helburu nagusia, finalera sailkatzea da, “gero gerokoak”.

Nork bere helburuak ditu txapelketan: finalera sailkatzea, finalaurreko on bat egitzea, txapela irabaztea. Eta horretarako prestatu dira, banaka zein taldeka.

Denak ibili dira jostun lanetan Bizkaiko Bertsolari Txapelketan, orratzak kantari jarri eta hitzak josten. ■



**Aldori** landetxea

Zabale, 8 · Muxika (Bizkaia)

☎ 94 627 15 09

[www.alldori.es](http://www.alldori.es)



Literatura

*Edo zu edo ni.*  
Ixiar Rozas.  
Erein, 2000



## Erdibidean geratzea ere

MENDE HASIERAKO ebento literario nagusia beste bat izan omen zen, argitaletxe bereko beste nobela bat, modu berean emakume batek idatzitakoa. Baina, alajaina, Ixiar Rozasen estreinako liburuaren harrera ere ez zen izan nolanahikoa. Luze gabe harrera kritikoa: kaleratu eta ondorengo lau hilabeteetan, zortzi kritika literario. Batzuk, auskalo zirrarak eraginda, pertsona berak idatziak, bertsio meioratuan-edo: *Bizitza aldatuz* izenarekin lehenik, *Bizitza berreskuratuz* gero. Kritiken hemeroteca markagailu balitz, 5 eta 8 esangon genuke, Rozasen alde.

Baina konpetizioa baino, literatura lehenetsi nahi duen tarte honetarako, hara: Graziana Barrenetxea dugu nobelako protagonista, 58 urteko emaztea. Bidegurutze batean aurkitzen da, seguru bere bizitzako garrantzitsuenean. Senarra du, nola esan, etxera iritsi, sofán etzan eta telebista pizten duen horietakoa. Seme-alabak habiatik kanpo, lagunik apenas, bizitza soziala mugatuko zaio merkatuko erosketetara. Eta gero dago adinaren mamua, zahartzearen izorratzea. “30 urte ezkondua, 10 auzo horretan, 28 Agustín jaio zenetik, 24 Laurarekin, eta horietatik zenbat izan ziren niretzat”, galdetuko dio bere buruari. Galdetzeko gero, “egon al daiteke hilik norbera, hilik egon gabe”.

Egiten duen arte bidaia bat, ezagutzen duen arte Anjel, txoferra, autobusa aparkatzeko garaje finko-

rik ez duena. Ez da izango, ordea, kromo kanbiatze soila, ez bada bizitza berri baterako atea. Eta zalan-tzati: “Nola egingo diot uko egun batetik bestera azken hogeita hamar urteotako bizitzari”. Bada, igarriko diozue nobela irakurri ahala: aldatzen da bizitza, bai horixe, aldatzen du protagonistak, zehatzago esanda. Kontakizunak aldatzen duen bezala, lehenengo, bigarren, hirugarren, narratzaileak; aldatzen duen bezala narratzaileak solaskidea; berdin aldatzen da denbora: orainetik iraganera, iraganetik orainera.

Eta egia da edabe, akelarre, sorginen irudia erabiltzea irudi liberatzaile gisa, zer nahi duzue esatea, pereza pixka bat ematen duela. Baina liburuak pasatzen duen mezua, mende hasierako ebento literarioak pasatzen zuena baino askoz ere iruditzen zait askatzaileagoa. Eta alde horretatik kritika errepikatzaileak arrazoi zuela: bizitza aldaketa baino, bizitza berreskuratze baten istorioa da hemen kontatzen zaiguna, gaur hain modan dagoen ahalduentzearen bidetik. Bukaerak sorpresa du, gainera. Eta epitafio gisa ere balioko lukeen sententzia hau: “puzlea osatzeko modu asko dagoela ikusi dut eta ez dagoela zertan osatu, erdibidean geratzea ere zilegi dela”. ■

Aritz Galarraga



**HABE**

Helduen Arlokatze eta Berreskalduntzerako Erakundea

Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Gazte nahiz heldu,  
euskara ikastea  
merezi du**



## Telesailak: mugarik gabeko fenomeno globala?

“GAUR EGUNGO zinema onena, telebistatik dator”, zenbat aldiz entzun dugu esaldi hori? Azken urte hauetan, pantaila txikia duin bihurtzen hasiak dira telesailak. Kalitate eskaseko eta exigentzia murrizteko produktu eta saioekin lotu izan da betidanik, baina ikuspegi hori, guztiz aldatu da. Lehen “zine-mazaleei” buruz hitz egiten genuen soilik, orain “seriezaleak” fenomeno ere agertu da. Izugarri harritzen nauen zerbait da, eta pelikulekin gertatzen denaren guztiz alderantzizkoa: hasieratik ditugun aurreiritzi guztien jaka erantzi eta esekitokian zintzilikatzen dugu. Jendea berdin zaio jatorrizko hizkuntzan dagoen, ekoizpena amerikarra ala suediarra den, hoguei edo 50 minutuko iraupena duen, aktore guztiz ezezagunak diren ala fantasiazkoa edo umorezkoa den. Behin harrapatuta, traba horiek guztiak kentzen dituzte gainetik.

Zergatik diot mugarik gabeko fenomeno dela? Korrika eta presaka bizi garen honetan, guztia segituan eta momentuan edukitzeko beharra sentitzen dugu eta telesailek aukera hori ematen digute. Filme-kin ez bezala, estreinatu eta segituan ikusteko aukera dago, eta horretan aliatu garrantzitsuena Internet dugu, zehazki esanda, sare sozialak. Hauei esker AMC, HBO edo Showtime bezalako kateek ahultasunak identifikatu baititzaizkete, audientzia soziala erabiliz.

Argi dago gainera, pelikula eta telesailen arteko marra ikusezin hori geroz eta finagoa dela. *Breaking bad* edo *True detective* saioek adibidez, urte osoan estreinatzen diren pelikulen %90ek baino gidio, pertsonaia eta lan sakonagoak dituztela oso argi daukat. Hori gutxi balitz, honelako produktu bat egitearen

kostua, telefilm batena baino hiru aldiz merkeago izaten da orokorrean. *Boardwalk Empire* adibidez, atzean Scorsese dagoela eta sekulako arte eta dekoratu pila daudela kontuan hartuta ere, errentagarriagoa izan liteke.

Ikuslea fidelizatu egiten dute. Askotan 50 orduko film bat ikusten ari garela dirudi eta horri esker kontsumitzeko ate berriak irekitzen dira: ordenagailuak, tabletak edo mugikorak, esaterako. Honek berrelikadura sortzen du, zarata, eta zaleentzako telesail jakin horren marketina mundu mailako gertakizun bihurtzen da. Gehienetan dosi txikiak izaten dira eta ez duzu bi-hiru orduko tarterik behar. Afal ostean atal bat ikus dezakezu, autobusean etxerako bidean edo ordenagailuan ohera joan baino lehen. Horri, harrapatzeko moduko istorio bat gehitzen badiogu, narrazio oso eraginkorra sortzen da.

Azken hamarkadan gainera, aktore edo zuzendari oso ezagunak mota honetako hainbat proiektutan murgiltzen hasiak dira. Nork imajinatuko lituzke, Kevin Spacey, Tom Hardy, Glen Close, Fincher edo Scorsese telesail baten atzean? Konturatzen hasiak dira orain urte batzuk pentsaezina zen zerbaitez, gaur egun izugarritzko garrantzia eta oihartzuna dutela.

Azken finean, ikuslea erakartzeko erabiltzen diren sistema horien akatsak non egon litezkeen argi daukat. Pantaila txikian aldiz, izugarri kostatzen zait hutsune horiek identifikatzen, etorkizunera begira jarri eta mugarik gabeko fenomeno global bezala ikusten baitut. ■

Gaizka Izagirre



|                                                                  |                                                |                                                         |   |                                       |   |                                      |                                         |                                                                |                                                           |                                                          |                                          |                                                             |                          |
|------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------|---------------------------------------------------------|---|---------------------------------------|---|--------------------------------------|-----------------------------------------|----------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------|------------------------------------------|-------------------------------------------------------------|--------------------------|
| ZAPARRADA,<br>ERAUNTZIA<br>-----<br>ALTZATU                      | ↓                                              | PARETA<br>MEHE<br>-----<br>ARRANTZA-<br>RAKO<br>TRESNAK | ↓ | DOLU,<br>GARBAI                       | ↓ | IZAN EZIK,<br>SALBU<br>-----<br>IHIA | ↓                                       | KONTSONAN-<br>TE ERREP.<br>-----<br>JUNTA-<br>GAILUA           | ↓                                                         | PROBA,<br>LEHIA<br>-----<br>KUKU SAGAR<br>GOGORTUA       | ↓                                        | EURAK<br>-----<br>PERTSO-<br>NAIAREN<br>SORTERRIA           | ↓                        |
| ↓                                                                |                                                | ↓                                                       |   | TEST, PROBA<br>-----<br>ARTSENIKOA    | → | ↓                                    |                                         | ↓                                                              |                                                           | ↓                                                        |                                          | ↓                                                           |                          |
| HESTEBETE<br>MOTA<br>-----<br>PERTSONAIA-<br>REN ABIZENA         | →                                              |                                                         |   | ↓                                     |   |                                      | EKAITZAREN<br>BURRUNBA<br>-----<br>GIGA | →                                                              |                                                           |                                                          |                                          |                                                             |                          |
| ↓                                                                |                                                |                                                         |   |                                       |   |                                      | ↓                                       |                                                                |                                                           | KARRIKA<br>-----<br>DAUKA                                | →                                        |                                                             |                          |
| AZPIA                                                            | UKATZEKO<br>HITZA<br>-----<br>GAUZA<br>HUTSALA | →                                                       |   |                                       |   |                                      |                                         |                                                                |                                                           |                                                          |                                          | ... EGIN,<br>ERABAT ASE<br>-----<br>IRARLEAREN<br>EGINKIZUN | →                        |
| ↓                                                                | ↓                                              |                                                         |   | ENTZUNAREN<br>ARABERA                 |   |                                      |                                         |                                                                | ERREPIKA-<br>PENA ADIE-<br>RAZTEKO<br>-----<br>DENBORALDI | →                                                        |                                          |                                                             | ZUHAIKXA<br>IZENA        |
| ZEREZKO<br>ATZIZKIA<br>-----<br>ZILARRAREN<br>SINBOLOA           | →                                              |                                                         |   | ↓                                     |   |                                      |                                         |                                                                |                                                           |                                                          |                                          |                                                             | ↓                        |
| ↓                                                                |                                                |                                                         |   | MEGA<br>-----<br>ERABATEKO<br>NAHASTE | → |                                      |                                         |                                                                |                                                           | SEIGARREN<br>MUSIKA NOTA<br>-----<br>SORBALDA,<br>BIZKAR | →                                        |                                                             | FOSFORO<br>-----<br>HODI |
| ABRAUN<br>KIROL<br>ELKARTEA<br>-----<br>PERTSONAIA-<br>REN IZENA | →                                              |                                                         |   | EGOKI<br>-----<br>ATOMO<br>KARGATU    | ↓ | EZEN<br>-----<br>IRATZA-<br>RRIRIK   | ↓                                       | BARRURA<br>JOAN<br>-----<br>ILLON MEN-<br>DIKATEKO<br>MENDATEA | ↓                                                         |                                                          |                                          |                                                             | ↓                        |
| ↓                                                                |                                                |                                                         |   | ↓                                     |   | ↓                                    |                                         | ↓                                                              |                                                           |                                                          | BIZI GAREN<br>PLANETA<br>-----<br>RADIOA | →                                                           |                          |
| BAZTER<br>-----<br>LASAITA-<br>SUNEZ                             | →                                              |                                                         |   |                                       |   | DESIRA IZAN<br>-----<br>KILOA        | →                                       |                                                                |                                                           |                                                          | ↓                                        |                                                             |                          |
| ↓                                                                |                                                |                                                         |   |                                       |   | ↓                                    |                                         |                                                                | IGANTZIKO<br>AUZOA<br>(NAFARROA)                          | →                                                        |                                          |                                                             |                          |

A photograph of a middle-aged man with glasses, wearing a light blue shirt and a dark tie. He is holding a black mobile phone to his ear with his right hand and has a wide-eyed, open-mouthed expression of shock or intense anger, as if shouting into the phone. The background is a plain, light-colored wall.

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | J | H | D | A | R | D | H |
| J | A | S | O | A | Z | E | T |
|   | S | A | L | A | M | I | O |
| H | A | R | T | S | U | A | L |
|   | E | Z |   |   |   |   | E |
| P | E | A |   |   |   | B | I |
|   | Z | K | O |   |   | G | A |
| A | G | M |   |   |   | L | A |
|   | A | K | E | O | E | S | A |
| J | U | A | I | N | A | Z | I |
|   | Z | O | K | O | D | E | S |
| L | A | S | A | I | K | I | U |



## BLACK IS BELTZA

## Erraldoiaren komeriak

BLACK IS BELTZA nobela grafikoaren istorioa New Yorkeko 5. etorbidean hasten da, 1965eko urrian. Orduan, eta honokoa benetako historia da, Iruñeko erraldoiak *sagar handiko* kale ezagun hartatik desfilatu ziren, bi salbuespenekin, erraldoi beltza ez zuten dantzazazi, arraza bazterkeriagatik galarazi zitzaizkionak. Manex Unanue euskalduna dugu fikziozko istorioaren protagonista, erraldoi beltza dantzazaztera New Yorkera abiatu da,

eta han dela, AEBetan geratzea erabakiko du. Abiapuntua hori izanik, Manexen edo *erraldoi beltza* ezizenez ezagun egingo den euskaldunaren istorioak garaiko gertaera, pertsonaia eta mugimenduak ezagutzen lagunduko digu, orduko giroa ezin hobeto deskribatuz.

Fikzioa eta errealtatea nahastuz, Manexen eskutik ezagutuko ditugu: New York eta Velvet Underground; Harlemeko giroa, Black Panthers mugimendua eta Malcolm X; Kuba, Fidel Castro eta Che Guevara; Mexiko eta Juan Rulfo; Los Angeles eta Chicano Power mugimendua; Monterreyko musika jaialdia; Montrealeko Erakusketa eta Charles de Gaulle; Aljeria eta Cheika Rimitti; Vietnameko gerra; KGB, CIA eta MOSAD espioitza agentzien trikimailuak; Boliviako gerrilla eta munduko liberazio mugimenduak; droga psikodelikoak eta sexu askapenerako mugimendua; eta batez ere, garaiko musika, Otis Reddingen *Respect* abestia ardatz.

2009an jaso zuen Harkaitz Canok Fermin Muguruzaren deia, Iruñeko erraldoiak New Yorkeko 5. hiribidean agertu zirenekoa jasotzen zuen egunkariko berria esku artean. “Argazki oinean irakur zitekeen erraldoi beltzei desfilean parte



Harkaitz Cano, Jorge Aldarete eta Fermin Muguruza.

hartzea galarazi zietela, arraza gatazkak tarteko”, azaldu digu Harkaitz Canok. Benetako istorio honek tiraka, Muguruzaren hasierako ideia, helduentzako animaziozko filma egitea bazen ere, “baloratu genuen pelikula egin baino lehen, pauso naturala izan zitekeela komiki bat egitea. Lanean hasi ginen bakoitzean bere aldetik, batez ere garaia aztertuz, oso garai zurrunbilotsuak baitziren”.

Testuinguru historiko honetan, ez dira Euskal Herriko gertaera historikoen aipuak falta. Hala, 1967ko Donostiako Bertsolari Txapelketa aipatzen da nobelako pasarte batean: Xalbador bertsolariak, publikoaren txistuak jaso ondoren, “txistuak jo dituzute bainan, maite zaituztet oraindik” kantatuta, publikoaren txalo zaparrada eragin zutenekoa. “Herrialdeetako kontaketa paraleloak agertzen dira. Oso nobela internazionalista da, Manexek egiten duen ibilbidea 10 hiritan gertatzen delako. Aljer, Mexiko, Madril, Kuba, Los Angeles, San Francisco... Munduaren ikuspegi nahiko zabala ematen du, beti ere Euskal Herria kontrapuntu bezala agertzen dela”.

*Black is Beltza* espioitza istorioaren barruan, “euskarak badu bere garrantzia, Manex protagonistak,

telefonoz euskaraz hitz egiten baitu Iruñeko bere lagunarekin, eta elkarriketa horiek espiaut egingo dizkiote amerikarrek. Horrela, garaiotan euskara espioitzarako hizkuntza bezala erabili zela agertzen da”, Harkaitz Canoren hitzetan.

Nobela grafikoaren jatorrizko hizkuntza euskara izanik, gaztelaniaz, frantsesez eta katalanez ere argitaratuko da, hainbat argitaletxeren eskutik. Euskarazko nobela Fermin Muguruzaren Talka

transmedia zigiluak kaleratuko du, frantsesez –Angulemakomiki azokan izango da–, gaztelaniaz eta katalanez, Bartzelonako Bang Edicionesen eskutik argitaratu da, eta azkenik, Mexikoko Caja de Cerillos argitaletxeak edizio berezia egingo du. “Mexikoko Guadalajarako liburu azokan, Latinoamerikako azokarik garrantzitsuenan, aurkeztuko dute eta bertan izango gara”. Jorge Aldarete argentinarra bada ere, Mexiko DFn bizi da egun. “Jorge oso ezaguna da Hego Amerikan, eta litekeena beste herrialde batzuetan, Argentinan edota Txilen, kaleratzea komikia”.

*Black is Beltza* nobela grafikotik harago doan proiektua da, eta horixe bera erakusten du Bilboko Alondégian, otsaila bitartean egingo den erakusketak. Komikiko irudi handituak, garaiko filmak, argazkiak, musika eta nobela girotzeko erabili diren hemeroteke lanak ikus daitezke bertan. Bestetik, hainbat kontzertu, topaketa, hitzaldi eta film ikusi ahal izango dira datozen asteetan Bilboko hainbat aretotan, *Black is Beltza* nobelaren giro historikoa hobeto ulertzeko. ■

Myriam Garzia



## Txip biodegradagarriak sortzen

GERO ETA ZABALDUAGO dago biodegradagarriak ez diren hondakinen inguruko kezka. Berrerabilpena edo, txarren-txarrean, biodegradagarritasuna da gero eta indar handiagoz bilatzen ari garena, baina orain arte, txipak daramatzaten tresnek ez dituzte aipatutako baldintzak bete.

Gailu elektronikoak zahartzean, bilke-ta gunetara eramatea baino ez zaigu gelditzen. Atal batzuk desmuntatu ondoren berrerabiltzea lortu badaiteke ere, txipekin ez da hori gertatzen. Txip erabiltezinak esponentzialki ari dira pilatzen, eta laster arazo galanta izango dugu.

Horri aurre egin nahian, Norvegiako ikerketa laborategi independenterik handienak, SINTEFek, erabili ostean desegingo diren osagaiak sortzen dihardu. Hain zuzen, ordu gutxian uretan disolbatzen diren magnesiozko elementuak kokatu dituzte litiozko xaflen gainean. Hala, txip horietan inprimatutako zirkuitu elektronikoak desagertu eta txiparen oinarria berrerabili ahal izango litzateke. Besteak beste, drone berrerabilgarriak ekoizten ari dira, itsasoan neurketak egiteko; euren lana amaitu ondoren, itsasoan disolbatuko lirateke. ■



WERNER JUVIK/SINTEF

Denbora laburrean desagitzen den txipa garatzen ari da SINTEF.



## EAEko ikerketa ereduak aldaketak



JOAN DEN MENDEAN sortutako ikerketa zentroen azpiegitura eguneratu nahi du Eusko Jaurlaritzak 2020rako. Ikerketaren emaitzak enpresetara efizientzia handiagoz hel daitezten, ikerlanen helburuak eta zentroen egituraketa birdefinitu nahi dituzte.

Ikerketa zentroetan, eta batez ere enpresei lotutako ikerketa unitateetan, kezkatuta daude, ez baitakite beren lanean jarraitzeko administrazioaren laguntza izango duten ala

ez. Helburuak orokorrak dira, nazioartean ere balioko dutenak, baina horiek lortzeko EAEko marka bat behar da, eta horretarako gure hizkuntzak eta gure kulturak zehar-lerroa izan behar dutelakoan nago. ■



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

## Txernobyleko paisaia post-apokaliptikoak

Danny Cooke kazetari ingelesak Ukrainako Pripjat hiriko irudiak hartu ditu drone baten bidez. Txernobyleko zentral nuklearretik hamar kilometrora dagoen hirian, gizakirik ezean, naturaren indarraren erakustaldia gertatzen ari da.

ttiki.com/91574  
(Frantsesez)

## Antartikako itsas azpiko izotz geruza, uste baino handiagoa

2010 eta 2012 urteen artean hainbat ikerlarik Antartikako izotz geruza neurtzeari ekin zioten, eta lortutako emaitzak zientzialariak harritu ditu. Itsaspeko izotzak batez beste metro bateko zabaleraz izatea espero zen, baina hamasei metroko zabaleraz neurtu dute.

ttiki.com/91575  
(Euskaraz)

## Ozono geruzako zuloaren eboluzioan aldaketa handirik ez

Irailean hainbat zientzialarik iragarri zuten ozono geruzako zuloaren arazoa betiko konponduta zegoela, eta orrialde honetan berriarekiko eszeptizismoa azaldu genuen. Azkenik, eta datu guztiak aztertu ostean, ozono geruzako zuloaren aurten go bilakaera azken 25 urteetan izandakoaren antzerakoa izan dela ikus daiteke. Egoera ez da okertzen ari, baina hobetzen ari denik ere ezin esan.

ttiki.com/91576  
(Ingeleseaz)

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

**iametza**  
interaktiboa  
www.iametza.com  
T.943 37 67 16



## Corellarra

ESPELETIA, Uribe, Aristeguieta, Echeverria, Lardizabala, Larrea, Lastarria, Ercilla, Luzuriaga, Ochagavia eta Urmenetea izenez gain, botanikak badu beste euskaldun asko: Abasoloa, Aldama, Alzatea, Arrabidea, Azola, Berroetea, Echeandia, Echeverria, Gardoquia, Iriarte, Iriartella, Ignatia, Lexarza, Mendoza, Mendozia, Saracha, Tafalla, Ulloa, Unanuea... Gehiago ere izan dira. Lasai, etorriko dira eta. Edo, nahi izatera, zerorrek ekarri.

Tafalla izenak historia bitxia du. Juan José Tafalla Nabasqués (1755-1811) corellarrari zor zaio. Ameriketarako egitera joanda, soldadu ari zela, garai hartako bidaldi botaniko esanguratsuenetakoa batean laguntzaile hasteko aukera baliatu zuen. *Expedición Botánica al Virreinato del Perú*, Ruiz eta Pavón botanikari ospetsuek zuzendu zuten. Handik aurrera ez zuen beste ezer egin. Baita botanikariok Madrilgo Jardín Botánicoaren erosotasunera erretiratzea erabaki zutenean ere; bere gisa jarraitu zuen. Ekuadorko eta Peruko landaredia beste edozein europarrek ez bezala ezagutu zituen. Berezi kina espezieak (*Cinchona* sp) landu zituen. Orduko sendagai begikoetako bat zen, eta



KLOCKRIKE-CC BY SA



FOREST & KIM STARR-CC BY

**Cinchona pubescens** espezieko aleak. Juan José Tafalla corellarrak 43 kina espezie aurkitu zituen Hego Amerikan egindako hainbat espedizio botanikotan.

etekin samurrak antzematen zitzaizkion. Bere irakasle eta nagusi izan zenak, Ruizek, zazpi espezie aurkitu zituen; Tafallak 43.

Landare ugari aurkitu eta haien haziak, landareak, bildumetarako laginak... zer ez zuen prantatu eta Espainiara igorri. Ordura arte ezezagunak ziren makina bat landare ere bai. Ikaragarritzko pagotxa zuten Madrilén. Tafalla jauna oihanean, aihotza astintzen, eta beraiek, belusezko besaulki erosotan ospea puzten. Madrilén jarri zioten izena Ameriketako lehenengoz aurkitutako landare askori. Hango jauntxoak omentzen dituzten izenak, gehienbat: *Una-*

*nuea*, *Cavanillesia*... Bere izena jarri zioten genero bati, baina aurrez beste izen bat zuen hark... Propio egin ote? Gero, Tafalla izena beste genero bati ezarri zaio, eta botanikari askok bere omenezko bigarren izena eman diote beste batzuei: *Mikania tafallana*, *Ornithidium tafalla*, *Solanum tafalla*, *Willoughbya tafallana*...

Limako Jardín Botánicoa eta hango unibertsitateko botanika katedra ere sortu zituen. Egindako aurkikuntzak argitaratu balitu, bere garaiko botanikari handienetakotzat genuke corellarra. ■



## Asuna irabazian

ASUNA (*Urtica dioica*) irabazian dago. Osinak nitrogeno asko duen lurra atsegin du. Gure inguruko landarea da ukiulu, korta eta etxeetan. Katuen mugarren barruan, beti dago simaurra ez bada minda. Horrek asuna dakar. Asuna landare magiko da natura eta biodibertsitatearen ikuspegitik. Ikaragarritzko lanak egiten ditu: jaki ona da eta sendabelar osagai aparta. Guretzat eta beste landareentzat ere. Argazkiko asun sorta inaurkin edo usteltzen ari den lur pilaren aldamean, nitrogenoa erruz askatzen ari denaren ondoan, irabazi ederrean dago. Mardul asko. ■



# Antzinaroko haurren hautespen “naturala”

ERROMA, K.A. VIII. MENDEA. Kon-dairaren arabera Romulok eta Remok hiria sortu zuten. Jaioberritan abandonatutako anaia bikiek otseme batek elikatu zituelako lortu omen zuten bizirautea. Eta ez ziren jaio eta berehala hiltzen utzitako Antzinaroko pertsonaia bakarrak: Pertseo, Sargon, Hadis eta Edipo ere jaioberritan abandonatu zituzten. Gehienak mitologiaren eremuan soilik existitu arren, horrek adierazten du egun higuin-garria iruditzen zaiguna nahiko ohikoa zela garai hartan.

Plutarkok jaso zuenez, Espartan, “zaharrenek jaioberria aztertzen zuten eta, ondo egina eta sendoa bazen, haurra hazteko erabakia hartzen zuten. Baina endekatua eta itxuragabea zela ikusten bazuten, haur txikia Taigetoko sakan batean zeuden *apothetai* (tornu) delakoetan uzteko agindua ematen zuten”. Greziako pentsalari nabarmenenek ez zieten jaioberriei aukera txiki hori ere eman nahi; norbaitek haur abandonatuak tornuetatik jaso zitzakeen. Hala, Aristotelesek eta Platonek jaioberriak toki ezezagunetan uzteko gomendatzen zuten. Lehenengoak behintzat oso garbi zeukan: “Seme-alaben hazierari dagokionez, haur akastunak haztea debekatzen duen lege bat egin behar da” (*Politika VIII, 15*).

Haur perfektuak izateko grina hori ezagun zuten Erroman ere. Erditzearen ondoren, *pater familiasek* haurra arreta handiz aztertu behar zuen. Jaio eta berehala, haurra aitaren parean jartzen zuten, eta azterketaren ondoren besoetan jasotzen bazuen, familian onartzen zutela esan nahi zuen. Bestela, mirabe edo esklabo batek jaioberria bidegurutze edo zaborte-giren batetan uzten zuen, hotzak jota edo piztiek janda hil zedin.

Ohitura horiek ez lirateke egungo mentalitateaz juzgatu behar. Adituen arabera, haurren heriotza tasa %30-40 artekoa zen Erroman, eta urtea bete baino lehen hiltzen ziren haurren kopurua ez zen oso bestelakoa



LOUVRE MUSEOA

**Ama haurrari bularra ematen, aitaren aurrean. Haurtzaroan hildako erromatar baten sarkofagoko erliebeen xehetasuna (K.a. 150 inguruan).**

Antzinaroko gainerako zibilizazioetan. Hortaz, hurrekiko lotura afektiboa beranduago garatzen zen. Darwinnek bere teoriak garatu baino ehunka urte lehenago gizakiek hautespen naturalari nolabaiteko bultzadaxoa ematen zioten praktika horien bidez, beste hainbat animalia espeziek egiten duten bezala. Eta bahetze metodoek luzaroan iraungo zuten. Bikingoek, esaterako, jaioberria hiribilduko hesietatik kanpo uzten zuten gau batez; gau izoztua jasateko gai bazen, komunitateko kide izateko eskubidea lortzen zuen. Eta kosakoek ibaiko ur hotzetan murgiltzen zuten, eta bainuaren ondoren orroka jarraitzen bazuen, onartu egiten zuten.

Haurren heriotza tasa XX. mendean jaitsi da %20tik, eta Mendebaldean baino ez. Egund, Nigerren, mila haurretik 154 lehen urtean hiltzen dira eta 262k ez dituzte 5 urte betetzen. Haur horien etorkizuna —edo etorkizunik eza— maiz ez dago beren komunitateen esku, eta industria farmazeutikoaren interes ekonomikoek erabakitzen dute, esaterako. Ez da hainbeste aurreratu 2.000 urtean. ■



## Arrastoak

### Etxe Zuria beltzez margotu zuten ia

1941EKO ABENDUAREN 7AN hegazkin japoniarrek Pearl Harborri eraso zioten eta estatubatuarrek etsaiak alde guztietan ikusten hasi ziren —ohi baino gehiago—. Luftwaffek Londres bonbardatu izanak paranoia areagotu besterik ez zuen egin. Hartara, Eguberrien atarian, AEBetako goi kargu militar batek erasoez babesteko protokolo sorta diseinatu zuen.

Bonbardaketak gaeuz izan ohi ziren, eta horregatik Gabonetako argiak murriztu zituzten, eraikin publiko nabarmenetan batik bat. Etxebizitza partikularretan zuhaitza etxe barruan jartzeko gomendatu zuten. Gainera, eraikin nagusietako kupulak, teilatuak eta terrazak beltzez margotzen hasi ziren, gaueko iluntasunean kamuflatzeko. Etxe Zurian gortina beltzak eta leiho blindatuak jarri zituzten eta fatxada beltzez margotzeko asmoa ere bazuten, Franklin D. Roosevelt presidenteak ezezko borobila eman zuen arte. Baina Laffayette plazako ohiko zuhaitza ez jartzea onartu zuen eta horren ordeztu aurrerantzean ere Zuria izango zen Etxearen hegoaldeko lorategian ipini zuten. ■



**1941eko abenduaren 24an Etxe Zurian gertatutakoaren marrazkia. Pearl Harborreko erasoa eta hamazazpi egun geroago, zuhaitza piztea erabaki zuten. Eta eraikina beltzez ez margotzea.**

ANTTON VALVERDE  
ERRAMUN MARTIKORENA  
MIKEL MARKEZ  
ARANTXA IRAZUSTA  
PIER PAUL BERZAITZ

# IMANOL 10 URTE GOGOAN

ABENDUAK 7 DONOSTIA  
VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA-19:00etan

AMAIA ZUBIRIA  
JABIER MUGURUZA  
NAHIA ZUBELDIA  
BEÑAT ACHIARY  
CAROLINE PHILIPS  
XABIER EUZKITZE  
FELIPE JUARISTI  
MIXEL AROTZE  
NAPOKA IRIA



Antzokiak  
donostiakultura.com

Laguntzaileak:



kargia

an@

EL DIARIO VASCO

Sareak:

- Victoria Eugenia Antzokia - Tlf. 943 481818  
- [www.donostiakultura.com/sareak](http://www.donostiakultura.com/sareak)  
- 18 €

# «Podemosek trantsizioan eman ez zen apurketa gauzatzen lagundu dezake»

Elgeta, 1972. Aralarreko idazkari nagusia da, VI. Biltzarraren ostean. Biltzarrean landu dituzten gaiek Kataluniako prozesu subiranozaleaz hitz egitera bideratu gaituzte: “Kataluniako prozesua eredugarria da, herritarrei eman behar zaie protagonismoa. Alderdiek eta erakundeek gizartearen eskaerei erantzun behar diete”. EAEko legebiltzarkidea da EH Bilduren izenean.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco

**Kataluniako prozesu subiranozalearen bidea ikusita, zer-nolako azterketa egiten duzu Euskal Herritik?**

Gure ustez, euskal lurralde bakoitzak bere bidea eta prozesua egin behar du. Gizartean eta ezker abertzalean hiru errealitate politiko direla barneratua dugu, baina oraindik korapilatu bat askatu gabe daukagu: Nafarroa, EAE eta Iparralde artikulatu eta garatu behar ditugu, betiere tokian tokiko herritarren arteko ekimen politikoa errespetatuz, nork bere bidea egiten duen bitartean. Aralarren VI. Biltzarreko ponentzian diakronismo hori aztertu da: alderdian, koalizioan eta gizartean korapilatu askatu gabe dagoela diogu. EH Bilduk areago findu eta askatu behar du gai hori. Dena den, EH Bilduk barneratua dauka errealitate bakoitzaren erritmoak kontuan hartu behar direla.

**EAEn soilik sezesio prozesu bat abiatzeko pausoa emango balitz, zein litzateke Aralarren jarrera?**

Pauso hori ematea edo ez, gizarteak erabaki behar du, alderdiok gizartearen esanetara izan behar dugu. Kataluniako prozesua eredugarria da zentzu horretan. Demokrazian, erabakitzeko eskubidea gauzatzeko herriari hitza eman behar zaio, demokrazia sakontzen da eta prozesuak herritarrak ahalduz dituzte beraiei etorkizuna erabaki dezaten.

Alderdiok ez dugu protagonistak izan behar, alderdiek eta erakundeek gizartearen eskaerei erantzun behar diete.

**“EH Bilduk alderdiez haragoko egitura izan behar du”, esan ohi duzu. Zer esan nahi duzu horrekin zehazki?**

Aralarren helburua ezker zabal eta anitza egituratzea izan da hasieratik. EH Bildu norabide horretan ulertzen dugu, EH Bildu Euskal Herriak behar duen tresna sendoa da. Indarrak metatzeko balio behar du, baina ez alderdiek osatutako egitura soilak izanez, ez du koalizio klasiko bat izan behar. EH Bilduk irekia izan behar du koalizioaren organoetan herritarrek parte hartu dezaten, baita erabakiak guztion artean hartzeko ere. Aldaketa garaian bizi gara, gizarte politikak egiteko beste era batzuk eskatzen ari da. Gizarte nekaturia eta haserre dago politikarekin. Badakit orain denok hori esaten dugula, baina...

**“EAJk gehiegi begiratzen du Madrilera, tematuta dago akordio bat egiten akordiorik nahi ez duenarekin”**

**EH Bilduko alderdi guztiek horrela ikusten duzue? Denek egin duzue bide eskema horretara.**

Ni ez naiz koalizioko beste alderdien bidea baloratzeko nor. Alderdi bakoitzak bere eboluzioa bizi du, eta errespetagarria da. Egokitzapenak guztiok egin behar izan ditugu ibilbidean. Orain funtsezkoa ezkerreko sentsibiltate abertzale ezberdinak elkarlanean aritzea da. Garrantzitsua helburu horiek lortzeko elkarlanari eustea da, une politiko honek eskatzen duen mailan egoten jakitea. EH Bildu eta ezker abertzalea orobat gizarteak eskatzen duen ildoan erantzuten ari da.

**Iraganeko ezberdintasunak gainditu al dituzue Sortuk eta Aralarrek?**

Ez guztiz, baina gero eta gutxiago dira. Ezberdintasunak egotea normala da. Ez bakarrik alderdien artean, alderdi barnean ere diferentziak daude. Ezberdintasuna ez da txarra, positiboa baizik. Diferentziek laguntzen dute gure gizarte zabala eta anitzaren nabardurak doitzten eta gure artean barneratzen.

**Aralarren txosten politikoan desobedientzia zibila landu duzue.**

Desobedientzia zibila herri honen iragan berrian erabili da eta landu beharko dugu. Euskal Herrian desobedientziaren kultura dugu,



baina azken urteetako egoera politiko zaila tarteko, desaktibatu zen. Guk desobedientzia gizarte zibila berraktibatu nahi dugu bidegabeak diren legeen kontra egiteko, lege horiek nagusitu ez daitezzen. Desobedientzia tresna bezala berreskuratu behar dugu eta etorkizunari begira egokitu, Katalunian bezala.

**Alderdi nagusiek legalitatea errespetatu behar dela diote, legearen kontra desobedientziaz ekitea kontraesana dela leporatzen dizuete.**

Beraien tranpan erortzen ari dira. Legalitatea jartzen dute denaren gainetik, demokraziaren eta pertsonen eskubideen gainetik. Ordea, legeak –Espainiako Konstituzioa– pertsonen aurka bidegabeki erabiltzen direnean zilegitasun guztia galtzen dute. Legeak giza eskubideetan oinarritu behar dira, justizia izan behar dute helburu. Espainiako Estatuaren erregimen frankistaren oinardeko zuzena da, zilbor este hori moztu gabe dauka, bere hiztegian ez da erabakitzeko eskubidea onartzen.

**Podemos alderdia edota fenomeno politikoa nola baloratzen duzu?**

Podemosek herritarrengan ilusioa piztu du, jendeak politikarekiko duen gaitzusteak gainditzen laguntzen ari da. Herritarrek euskarri bat behar zuten eta Estatuko politikan dagoen ustelkeria tarteko, herritarrek bereganatzen ari da. Podemos Estatuko bipartidismoa puskatzera dator eta trantsizioan eman ez zen apurketa gauzatzen lagundu dezake.

**EH Bildu prest al dago Podemos, Irabazi edo Equo bezalako alderdiekin udal eta foru hauteskundeetan aurreakordioak egiteko?**

Nik ez dut arazorik ikusten, baldin eta helburuak eta programak konpartitzen baditugun. EH Bildu oso irekia dago proposamen guztietara, eta erakundeetan ere norabide horretan ari gara lanean.

**Podemos batzarra eta politika horizontaltasunez lantzen ari da. Jarduerak horretan aurea hartuko ote dizuen kezkarik ez al duzue?**

Kezkarik? Batere ez. Aralarren hasieratik, Podemosen jarduera delakoa landu dugu. Gure politikan



**“EH Bilduk indarrak metatzeko balio behar du, baina ez alderdien egitura soila izanez, ez du koalizio klasiko bat izan behar”.**

“kide batek boz bat dauka” lemak balio du. Gure funtzionamendua oso horizontala da eta EH Bildun ere funtzionamendu hori indarrean dago. Noski, badago zer hobetua, baina eboluzio hori ematen ari da.

**Podemosek eta ezker abertzaleak zein neurrian egin dezakete bat herri honen subiranotasun xedeetan?**

Podemosen helburuak ez ditugu ezagutzen, orain arte bereziki kastaren diskurtsora mugatu da. Podemosen sarrera politikan guztiz onuragarria izango da, baldin eta erabakitzeko

eskubidearen onarpena aldarrikatzera badator. Hori da klabe nagusia.

**EH Bilduren legebiltzarkidea zara. Zer esperientzia izan duzu bertako politikan? Ezker abertzalearen iraganez tentsioek eragina izan al dute?**

Ni neu esperientzia oso aberasgarria bizitzen ari naiz. Aralar EH Bildu bezalako koalizioan egotea nahi nuen beti. Hasiera zaila izan zen, giza proiektu humano guztietan gertatzen den bezala. Eusko Legebiltzarrean ez genuen elkar ezagutzen eta taldea egokitzea kos-



tatu zitzaigun. Baina arduren banaketa ongi egin zen, eta oso gustura ari naiz, giro ona daukagu.

### **Legebiltzarreko Bake ponentzia hizpide, non dago zailtasuna EAJrekin adostasunera iristeko?**

Bake ponentziaren sorrerak berak hipotekatu zuen bere etorkizuna. Batetik, ezarritako baldintzen pean sortu zelako. Esaterako, zoru etikoaren inguruan jarri ziren edukia ez dira egokiak. Bakea helburu baldin baduzu, baldintzarik gabe abiatu behar duzu. Elkarlana eta adostasunak beste era batera landu behar dira. Bestetik, EAJren beste akats bat PPri eta PSeri beto eskubidea ematea izan zen. Halaber, Bake ponentzia lau sentsibiltate nagusiei mugatzea akatsa da, bake lana ezin da mugatu Legebiltzarreko parete-tara, askoz irekiago izan behar du.

### **Erabakitze eskubidea onartzeko bidean, nola baloratzen duzu EAJren politika Legebiltzarrean?**

EAJk gehiegi begiratzen du Madriler, tematuta dago akordio bat egiten akordiorik nahi ez duenarekin, euskal herritarren erabakitze eskubidea onartu nahi ez duenarekin. Madriler hainbeste begiratu beharrean EAJk euskal gizarteari begiratu eta euskal alderdi eta gizarte eragileekin lanean hasi behar luke, bertatik geure bidea egiteko, Katalunian egin duten bezala.

### **Zerk trabatzen du hori egitea?**

Faktore ezberdinak....

### **Nork bere hegemonia lortu nahi izatea, akaso?**

Batzuek hori diote, baita iragan politikoaren eragina ere, eta hauteskundeak sarritan tartekatzen direlako. Baina faktore horiek gainditzeko gai izan behar dugu Euskal Herriak erabakitze duen eskubidea lortu aldera.

**“Kutxabank edo AHT kontrolatzen dituzten organismoek ez diote Olentzerori idazten, Sabin Etxera bidaltzen dute euren gutuna”**

### **EAEko aurrekontuetan Jaurlaritzarekin akordioa lortzeko aukerarik bai?**

Guk aurrekontuetan oso proposamen zehatza egin dugu. Esaterako, ez dugu 600 milioi euro gehiago eskatu, diru partida batzuk beste batzuen aldean lehenestea baizik, hala nola hezkuntza, osasun eta zerbitzu sozialetarako. 2015eko aurrekontuetan 968 milioi euroko zorra dago. Agian, zorra hobeto aztertu eta zer ordaindu eta zer ez erabaki beharko litzateke. Familien egoerak suspertzeko kontziliazio laguntzak %40 jaitsi dira, larrialdietakoak %33. Haur-eskola partzuergoarentzat lau milioi euro gutxiago daude. Jaurlaritzak, ordea, aurrekontuak diseinatu ditu murrizketak ezarritik. Aldiz, inbertsioetan, %68 AHTra joan da. Tren horrek ez dauka Ipa-

**“Familien egoerak suspertzeko kontziliazio laguntzak %40 jaitsi dira, larrialdietakoak %33”.**

rraldearekin loturarik, ezta Espainiako Estatuarekin ere.

### **Andoni Ortuzarrek erantzun dizue zuen eskaerak Olentzerori igorri ohi zaizkion gutunen modukoak direla.**

Oso adierazpen prepotenteak eta friboloak izan dira. Une honetan familien %45 pobreziaren ertzean daude. Familia horiek ez dute baliabiderik ezta gutun hori idazteko. Aldiz, Kutxabank edo AHT kontrolatzen dituzten organismoek ez diote Olentzerori idazten, Sabin Etxera bidaltzen dute euren gutuna.

### **Josu Erkorekak EH Bilduren helburuak bere egin ditzakeela esan du orriotan, baina nola egin lortzeko galdetxean ez duzuela proposamenik.**

Hori ez da egia. Guk oso proposamen zehatzak egin dizkiegu.

### **Hala nola...**

EAEko aurrekontuetan, esan bezala. Estatus berriaren ponentzia eratzera dokumentu bat helarazi genion EAJri, Euskal Bidea gure proposamenaren bidean.

### **Zein da gakoa kasu horretan?**

Erabakitze eskubidearen onarpenaren ildoan politika egitea.

### **Gure Esku Dago ekimenean EAJko kideak ere ari dira.**

Gure Esku Dago bitarteko garrantzitsua da erabakitze eskumena sustatu eta gauzatu ahal izateko. Bere lana berebizikoa da ahalik eta jende gehien biltzeko, abertzalea izan edo ez izan, eskumena demokrazia kontua baita. Hala ere, bidean bide, alderdien artean sor daitezkeen eragozpenak gainditzeko, herritarrek hartu behar dute protagonismoa, ondoren alderdiok erantzun bat eman dezagun. Aldeak alde, Katalunian Artur Masek erakutsi duen moduan. Bera gai izan da gizarteak eskatzen duenari erantzun bat emateko.

### **Urkullu ikusten duzu bide horretan?**

Horixe da gure nahia. ■







# ***Harpidetza bakoitzarekin, are independenteago***

*Jarri ekonomikoki zure tanta  
etorkizuna margotzen jarrai dezagun*

Garrantzitsua denaz informatuta egoteko, ikuspegi kritikoarekin

Argiaren proiektu komunikatiboa babesteko eta bultzatzeko

Argiaren balioetan sakontzeko

Mahai gainean jarri nahi dituzun eztabaidak jendarteratzeko

Zuretzat garrantzitsua dena denentzat garrantzitsua izateko

ARGIA astero jasotzeko aukera: **hilean 12 €** baino ez!\*

ARGIA hilean behin jasotzeko aukera: **hilean 4 €** baino gutxiago!\*\*

***Egizu, egiozu  
harpidetza!***

**Eskaerak:**

☎ 943 371 545 | [harpidetza@argia.eus](mailto:harpidetza@argia.eus) | [www.argia.eus/harpidetza](http://www.argia.eus/harpidetza)

***Durangoko Azokan ere topatuko gaituzu (Goienkale 71)***



# Kosakoen burdinazko gerrikoa

Bonben eztanda gero eta hurbilago sentitzen da Luhansken. Argi eta ur barik igarotzen dute ilunabarra hiri matxinatu honetan, urrunean grad misilen oihartzuna entzuten den bitartean. Novorossijako (gehiengoa errusieraz mintzo den Ukrainako zonaldea) hauteskunde demokratiko, jendetsu eta baketsuen osteko egunetik, Ukrainako presidente Poroxenkok mendekua iragarri zuen. Hiriak defentsa antolatzen jarraitzen du.

Testua eta argazkiak:

| IBAI TREBIÑO / LUR GIL |



Bonbardaketen aztarnak nabariak dira Luhansk hirian.

“FRONTEA gero eta hurbilago dago”, kexu dira hilabete luzez errefuxiatu izateari utzita Luhanskera itzulitako biztanle asko. Luhansk hiri segurua da abuztutik hona, *apaltxensiek* (milizianoak)

setio militarra apurtzea lortu eta bonbardaketak hiritik urruntzea lortu baitzuten, Strelkov jeneralak gidatutako kontra-ofentsiba arrakastatsu baten ostean.

“Frontea hiritik 15 km eskasera

dago, hurbilena StanitsaLuganskaya herrian”, dio Oleg-ek, hara abiatzen ari dela. Oleg Popov Novorossija eta Luhanskeko Herri Errepublikako parlamentarioa da eta herri milizietako komandantea.



Bere eskutik frontea ezagutzeko parada izan dugu. Popov jaunaren autoa ez da parlamentario normal batena, miliziano batena baizik. Luhanskeko Herri Errepublikaren matrikula eta akreditazio ofizialaz aparte bala batek eragindako zuloak apaintzen du kotxe sobietar zaharraren kristala: “Tirokatu ninduten, baino zorionez ez zen ezbeharrik gertatu”, esan digu. Autoaren atzeko partean berriz ez dago eserlekurik, gasolina eta arma batzuk besterik ez. Bere ondoan AK-47 zahar eta astun bat, bidaia osoan hanken artean eraman duena. Abiadura handian doa Popov, hiritik iparralderantz. Errepidea erdi-hutsik dago, herrietara itzultzen diren auto edo bizikleta gutxi batzuk topa daitezke bakkari. Bonbek utzitako zuloek abiadura moteltzera derrigortu gaituzte. Ukrainako armadak Donbasseko azpiegitura gehienak txikitzea izan du helburu guda hasi zenetik. Zerbaitek gure arreta eraman du bat-batean, muino batean dagoen komando militar baten presentzia: “Kosakoen frontera” heldu gara.

### “Kosakoek defendatzen dute gure hiria”

Kosakoek kontrolatzen dute Luhansk hiritik gertu dauden fronte nagusiak: Stanitxaluhanskaya eta Slobianoserbsk. Kosakoak (errusieraz Kazaki) herri eta talde sozio-militar nomada dira. Kide guztien askatasuna, berdintasun soziala eta

**“No pasarán”, “Caput Hitler” edo “Venceremos” miliziano askoren ahotik entzungai diren faxismoaren aurkako leloak dira**

kide ororen adierazpen askatasuna dira historikoki komunitate kosakoen barne-antolakuntzaren oinarriak. Kosakoak aski ezagunak dira herri borrokalaria izateagatik. Hori dela eta kosako terminoa mespretxuz erabili izan da mendebaldarren artean, ezjakintasuna medio. Kosakoen inguruko irudi faltsu bat sortu

izan da, beldurra eragiteko asmoz. II. Mundu Gerran armada gorriaren parte izan ziren, Sobietar Batasunaren alde eta nazien aurkako borrokan parte hartu zuten. Ezau-garri dagokionez, kosakoak eslaviarrek eta ortodoxoak dira eta X. mendean Ukrainako hego-ekialdean (Novorossija historikoan) ezarri ziren. Bertan dago beren jatorria eta hori da Errusiatik edo Ukrainako beste leku batzuetatik etorritako milaka kosakok borroka egitearen arrazoietako bat. Egun, Prizrak brigadorekin batera Novorossijako armada bateratua sortu dute, Aleksei Mozgovoi komandantearen gidaritzapean. “Kosakoek defendatzen dute gure hiria, eta hori dela eta eskerrak baino ezin diegu eman”, diosku Luhanskeko biztanle batek. Donbasseko defentsan aitzindariak izanda, herriak kosakoei ematen dien babes agerikoa da. Azken egunotan Ukrainako armadak kosakoen kontrako borroka argudiotzat hartuz Pervomaisk eta Stakhanov herriak etengabe bonbardatu ditu, hainbat zibil heriotza eraginez. Baita Slobianoserbsk herria ere, bertan topatu dugun





Lehenengoan, herri milizietako kideak gerra-frontean; bigarrenean, Luhanskeko kosako bat eta hirugarrengoan, kosakoen fronteko komandantea, Ukrainako artilleriak bonbardatutako eraikin baten aurrean.


herritar batek esan digu hori bonbardatu berri duten eraikin baten aurrean: “Gaur eraikin hau bonbardatu dute, eta orain dela gutxi Lenin kalea bonbardatzen ari ziren”. Slobianoserbsk Luhanskeko ipar-mendebaldeko herri bat da. Umeak futbolearen ari dira bonbak orduro

jausten badira ere. “Ikaragarria da herri honetako jendearen lasaitasuna”, dio gurekin dagoen kazetari errusiar batek.

“Guk defendatzen dugu Slobianoserbsk herria. Frontea gure eskutan dago eta posizioak irabazten joango gara aurrerantzean”,

dio Kosakoen komandanteak mortero eta *grad* hotsak gure ondoan sentitzen diren bitartean; “lasai egon, *grad* bat jaustekotan bota zaitzete lurrera”. Herritik buelta bat emanda kosakoen posizio defentsak ikusgai dira, baita kuartelean dagoen destakamendua ere. Slobia-

audience anari  
hotel gora japon  
inoren ero ni  
joseba irazoki  
lisabö jupiter jon  
xabier montoia  
mursego sacco  
los separatistas  
willis drummond  
young talent show



Durangoko Azokan,  
Artekalde 50



noserbskeko herritarrek ere laguntza eskaintzen eta babesa ematen diete beraiei herria eta zibilak defendatzera joan direnei.

Iluntzeaz da eta negu gorria Donbassera heldu da. Termometroa zero azpitik dela igaro behar dute gaua fronteko milizianoek. Komandanteak frontaren lerroak zelan antolatzen diren azaldu digu, ukrainarren “jokaera zikinaz” kexu den bitartean. “Ukrainako gobernuak heriotzara bidaltzen ditu bere soldaduak. Eraso gehienak artilleria astunaren bidez egiten dituzte, populazio zibila izutze-ko eta hiltzeko asmoz. Ukrainako soldadu askok ez dute esperientziarik, arropa ezegokiekien eta baldintza txarretan bidaltzen dituzte frontera. Bigarren lerroan Guardia Nazionaleko kideak daude, eta azken linean, posizio ziurrenetan, Pravi Sektor batailo naziko kideak. Hau da ukrainarren estrategia, jende arrunta heriotzara bidaltzea, frontera joatera derrigortzea, gobernatzen duten faxistak etxean bero-bero dauden bitartean”. Herri miliziek ordea “ukrainarrek herrietan dituzten posizio militarrek ez ditugu bonbardatzen, horrek zibil askoren heriotza eragingo lukeelako. Ukrainako armadak hori baliatzen du eta ospitale eta eskoletan ezkutatzeko dira”, diote milizianoek.

### Faxismoaren aurkako erresistentzia

Iluntzeaz da Slobianserbsken eta Kosakoen komandanteak bertatik alde egiteko gonbita egin digu, bonba hotsak gero eta biziago bilakatzen direla. “Iluntasuna dela eta ofentsiba hastear dago eta egoera oso arriskutsua da”. Komandantea agurtu eta kotxea argi barik gidatu dugu segurtasun kontuak direla eta.

Iluntasunean hiru kilometro inguru eman ostean miliziano-en *checkpoint*-era heldu gara. Tiroka hasi dira bat-batean, etsaiari beren presentzia ohartarazi nahian. Herri-miliziek armak soberan dituzte oso sofistikatuak ez badira ere. Ukrainako estatu kolpearen ostean eman diren desertzioei esker lortu dituzte ukrainar armadari ostutako armak eta bestelako tresna militarrek. Guregandik gertu dauden artilleria posizioak ere entzungai dira. Haien esanetan “ukrainarrek jasotzen duten kanpolaguntzari esker, gure aldean artilleria bikaina daukate. Infanteria aldetik oso eskasak dira ordea, koldar hutsak dira”.

Afaltzen harrapatu ditugu milizianoak. “Hemen ezin dugu argirik erabili, soilik janaria prestatzeko eta gure gorputzak berotu ahal izateko su apal bat”. Gau luzea eta hotza eman beharko dute bertan, baina altua

EUSKAL OROIGARRIA  
**MAKILA**  
eskaintza berezia



Opari berezietarako

Pertsonalizatuak

Prezio aukera desberdinak

Iñaki Alberdik eginak



**argia**

**Eskaerak:**

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15

20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

© 943 371 545 - denda@argia.eus

[www.argia.eus/denda/makilak](http://www.argia.eus/denda/makilak)





## Existitzen ez den bakea

IRAILAREN hasieran Ukraina, Errusia eta Novorossijako hainbat ordezkari politikok, Nazioarteko Kontakturako Taldearen bitartekaritzaz, *Minskeko akordioa* izenaz ezaguna den bake plana sinatu zuten. Akordio horren helburu nagusia Ukrainako ekialdeak bizi duen gatazkari amaiera ematea zen. Aldebiko su-etena indarrean jarri eta negoziazio politikoren bidez adostu beharreko akordio nazional eta politikoari ateak zabalduko lizkiokeen akordioa zen.

Autodefentsarako Herri Miliziek akordioa iruzurtzat jo zuten hasieratik; Kievek bere indar armatuak berrantolatzeke saiakera hutsa zela salatuz. Indar kolpistek egun kontrolpean daukaten Mariupol hiri estrategikoa berreskuratzeaz zeunden milizianoak garai horretan.

Novorossijako herritarren artean ere ezkortasuna izan da nagusi su-etena indarrean jarri zenetik. Ukrainako Gobernuak

zibilei eraso egiten jarraitu duela, eta maiatzean erreferendum bidez herritarrek bozkatutakoari bizkarra eman diolako.

Gudak, beraz, aurrera darrai. Mariupolen, Ukrainako Gobernuak Donbassen duen hiriburu politiko eta ekonomikoan, arpilatzek, bortxaketak, legez kanpoko bahiketak eta hilketak selektiboak ugaritzen ari direla salatzen ari dira. Eta horiek eteteko asmoz, herri milizien ofentsiba militarrek aurrera jarraitzen du. Donetskeko aireportua kontrolatzeko borroka, kasu. Liskar bortitz horretan bi aldeetako militar askok galdu dute bizitza, tartean Ukrainako Gobernuaren alde soldatapean borroka egitera Poloniatik eta AEBetatik joandako militarrek. Gerra-fronte nagusiak Donetskoko eta Luhanskeko Herri Errepublikak matxinatuen arteko mugan daude, hauen arteko komunikazioa eten asmoz.

Kieveko erasoaldia hasi zenetik 4.000 lagunek galdu dute bizitza

eta beste 10.000 inguru zauritu dituzte, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) argitaratu berri duen txostenaren arabera. Minskeko bakeakordioaren ostean ere, 1.000 hildako baino gehiago suertatu dira. Ukrainako armadak, herri eta hirietan egin dituen bonbardaketek zibil asko hil ditu, eta NBEk sistematikoki salatu badu ere, erasoaldiak ez dira eten. Ukrainako armadaren legez kanpoko armen inguruan ere kezka handia dago. Nazioarteko legedian debekatuta dagoen *cluster* bonben erabilpena frogatutzat eman du hainbat adituk. Zibilen bahiketak, exekuzioak edota tortura sistematikoak Ukrainako armadaren praktikak direla salatu dute giza eskubideen aldeko hainbat erakundek. Bestetik, Errusiak milizianoei emandako ustezko laguntza militarra inbasioztat jo du NBEk, OSCEko (Europako Segurtasunerako eta Lankidetzarako Erakundea) begiztatzailleek eta nazioarteko adituek frogatutzat eman ez badute ere.

da milizianoen morala. Horren seinale “No pasarán”, “Venceremos” edo “Caput Hitler”, edonon eta miliziano ororen ahotik entzungai diren leloak; Kuba, Latinoamerika edo Espainiatik inportatutako aldarri iraultzaileak sarritan erabiliak izaten dira Donbassen, faxismoaren eta inperialismoaren kontrako erresistentzia guda dela adieraziz. Nazien aurkako

askapen borroka beti egon da presente Donbasseko herri eta langileen memoria kolektiboan, egungo borrokaren identitatea eta arrazoia eraikitzen lagundu duen ezaugarrietako bat izan da.

Luhanskera itzultzeko bideari ekin diogu. Auto gutxi eta tanke batzuekin soilik gurutzatu gara bueltako bide arriskutsu honetan.

Artilleriaren hotsa gertu entzuten delarik, Novorossijako zero ilunean misilen distira piztu da bat-batean; Bi su gurutzatuen artean, Luhanskera doan errepide txikituan barrena, beldurrrak eragindako isiltasuna izan da nagusi bidaia liluragarri honen amaieran. ■





**Odol mamituak**  
Aline Agirre



**Mamuak**  
Ana Urkiza



**Orube abandonatuak**  
Garazi Kamio

**bizi literatura**



ebook-ean ere bai!

**elkar**  
[www.elkargitaletxea.com](http://www.elkargitaletxea.com)

# elhuyar APP GUNEA

ELHUYARREN **APP** BERRIAK  
DURANGOKO AZOKAN

Elhuyar  
hiztegi elebidun  
guztia,  
orain APP  
bakarrean!



Bisitatu **Elhuyar**ren stand-a  
(Artekale 55-56),  
**MUGIKORRERA ETA TABLETARA**  
deskargak egiten  
lagunduko dizugu



adi!

Aurten ere,  
**REMOVE PLANA**  
izango duzu.  
Ekarri zure  
euskara-gaztelania  
hiztegi zaharra  
eta % 30eko  
deskontua zure  
hiztegi berria  
erosterakoan



ONLINE / OFFLINE



HITZMIX JOLASAK



# «Inkesta soziolinguistikoan berriro egiaztatu dugu katalana askatasunaren hizkuntza dela»

Plataforma per la Llengua, “katalanaren gobernuz kanpoko erakunde” deritzonaren exekutibako kide da Francesc Marco (Tarragona, 1989) historialaria. Hogei urte bete ditu erakundeak, eta Katalunian bizi den prozesuak hizkuntzari ireki diezazkiokeen ate berriei begira dago, Europari eta estatu propioak katalanari eskaini diezaiokeen babesari, besteak beste.

| IURE EIZAGIRRE |

Argazkia: Plataforma per la llengua

*Plataforma per la Llengua. 20 anys defensant el català* liburuan instituzioen, alderdi politikoen eta elkartzesareen urtetako jarrera aztertu duzu. Zein izan da alde horietako bakoitzaren egitekoa?

Frankismoko 40 urteren ondoren, katalana normalizatzeko proiektu osagarriak oso positiboak izan dira. Instituzionalak funtsezkoak izan dira katalana administrazioan ohiko hizkuntza gisa sartzea, kalitatezko komunikabide publikoak sortzea –TV3, Catalunya Ràdio– eta eskoletako murgiltze linguistikoa. Gainera, hainbat arloren normalizazioa handitu eta biziagotzeko aldarrikapena konplexurik gabe zabaldu da urte hauetan asoziazionismotik. Anbizio gehiago eskatu da eta alderdi politikoak zeharka estutu dira katalanaren alde lanean jarraitzeko. Bere egin dute konpromiso hori, maila altuagoan batzuk eta baxuagoan besteak.

Deigarria da erakundearen lehen ekintza publikoa katalanez etiketatzeko eskatzeko egin izana eta hogeitau urte geroago eskari bera eta berberei egin behar izatea.

Multinazional handiei katalanaren erabilera handiagoa eskatzeko egin zen lehen ekintza publiko hura eta harrez gero arrakasta asko lortu



**“Katalanismoaren diskurtsoa modernizatu egin da: kontua ez da ‘eustea’ baizik eta eredu egokia eraikitzea”.**

ditugu, nahiz eta ez erabatekoak. Enpresa arloan, erakundeak beti lotu izan du katalanaren erabilera modernitatearekin, produktu eta zerbitzuen balio erantsi gisa; kontsumitzaileen eskubideekin eta erantzukizun sozial korporatiboarekin.

Hizkuntz normalizazioaren prozesuan –prozesu guztietan bezala– ezinbestekoa izan da emaitza haute-mangarriak lortzea, eta pragmatismoarekin, zehaztutako helburueta-

rantz, nahi den zerumugarantz, pauso irmoak ematea.

**Plataformak diskurtso positiboa du hizkuntzaz, zertan egin da lan eta zer lortu da orain arte?**

Azken bi hamarkadetan ikusi dugu katalana pixkanaka arlo sozioekonomikoan sartu dela eta marka handiak hau barneratzen hasi direla. Hori oso garrantzitsua da. Gainera, mende aldaketarekin, erronka berri

bat agertu zen: migrazioak hartzea. Eskola eta helduentzako ikastaroak erabakigarriak izan dira. Denok lagundu dezakegu gizarte-kohesioa bermatzeko katalan berriak gizartean modu eraginkor eta afektiboan barneratzen.

Zentzu horretan katalanismoaren diskurtsoa modernizatu egin da: kontua ez da “eustea” baizik eta eredu egokia eraikitzea, zeinetan katalana hizkuntza komun gisa oso erabilgarri izango den herrialdeko plaza eta kaleetan hitz egiten diren 200 hizkuntza baino gehiagoren artean. Hortik dator bikote linguistikoaren, tandem eta elkarrizketa taldeen erabilgarritasuna. Diskurtsoan zein praxian, emaitzak oso esanguratsuak izan dira.

**Katalana Kataluniatik kanpo ere hitz egiten da, zein da hizkuntzaren egoera leku hauetan?**

Hizkuntzak gaurkotasuna du katalanak batzen dituen eremuetan. Balear Uharteetan areagotu egin dira eskolako murgiltze linguistikoaren aurkako erasoak, eta honekin batera ikasgelak hustu eta euren kamiseta berdeekin kaleak bete dituzten irakasleen mobilizazioak ere bai.

Valentziako Erkidegoan ez dago hitzik TV3 debekatu eta Canal9 itxi izanaren, katalanezko hezkuntza ereduaren umeak matrikulatu ezin dituzten milaka familien egoeraren edo hizkuntzaren batasunaren aurkako erasoen aurrean. Eta zer esan Aragoi Ekialdeko Zerrendako LAPAO delako [Aragoiko Gorteen erkidegoan hitz egiten den katalanari *Lengua aragonesa propia del área oriental* izena eman zio-

**“Egungo estatuak ez badu onartu bere barne pluraltasuna 35 urtetan, katalanaren aldeko estatu batera igaro beharko da”**

ten 2013an onartutako Hizkuntzen Lege berrian] askakizun surrealistas? Badirudi Joan Fuster intelektual valentziarrak 60ko hamarkadan marrazten zuen Herrialde Katalanen mapa indarrean dagoela egun ere.

**Duela gutxi argitaratu dira azken inkesta soziolinguistikoaren emaitzak, zein balorazio egin duzue? Aipagarria da katalanaren erabilera jaitsi izana azken hamar urteetan.**

Berriro egiaztatu dugu katalana askatasunaren hizkuntza dela. Zenbat eta askatasun gehiago egon, orduan eta aukera gehiago du katalanak normaltasunez garatzeko. Eta hori oso grafikoa da: estatuak esku hartzen ez duen eremuetan katalanak aurrera egiten du, eta aldiz, estatuak esku hartzeko gaitasuna duen lekuetan, katalanak zailtasun nabarmenak ditu. Baina Katalunia bizitzen ari den prozesu politikoak buelta eman diezaioke horri urte gutxiren buruan. Gu baikorrak gara.

**10 milioi hiztun inguru ditu katalanak. Europar Batasunean onartua izatea eskatzen duzue, ezta?**

Katalana hizkuntza ertaina da Europa mailan. Hiztun kopuru, kultur kontsumo eta dinamismo jakin bat

ditu eta jendea erakartzeko Europar Batasuneko beste hizkuntza ofizial batzuk baino askoz gaitasun handiagoa. Zergatik izan behar dute katalanek eskubide gutxiago?

**Kataluniako prozesu politikoak ireki al lezake Europako atea?**

Zalantzarik gabe, egungo estatuak ez badu onartu bere barne pluraltasuna 35 urtetan, katalanaren aldeko estatu batera igaro beharko da, honek dakarren nazioarteko onarpen guztiarekin.

**Independentziak salbatuko al du katalana?**

Nik sinesten dut estatu propioak, independentziak, hizkuntza aniztasuna modu adimentsuan kudeatzeko eta katalana hizkuntza komun eta gizarte kohesiorako tresna bihurtu ahal izateko balioko duela. Gainera, etorkizuneko estatuko hizkuntza politikak katalanarentzako babesleku eta hizkuntzak batzen dituen lurralde multzoarentzako erreferentzia izan beharko luke.

**Hogei urteren ondoren, zer geratzen da egiteke? Zeintzuk dira Plataforma per la Llenguaeren etorkizuneko erronkak?**

Erakundearen lehentasunezko helburua desagertzea da [barre egiten du] hau izango delako katalanez bizi daitekeenaren adierazgarri. Hala ere, badakigu oraindik lan asko dagoela egiteko –batez ere arlo sozioekonomikoan eta katalan berrien barneratzean– baina aukerak onak dira eta trantsizio nazionalak lagun dezake. ■




**Tolosako Babarruna**



**Hoberenak soilik aukeratzen ditugu**

☎ 943 650 253  
www.tolosakobabarruna.com



**Lusarbe**  
apartamentu turistikoak

Benta Aldea, 10  
ORIO 20810  
☎ 629 52 52 63  
info@lusarbe.com  
www.lusarbe.com



**Gure Kide**  
Albailaritza klinika



Murueta Auzoa, 1  
48220 MATIENA (Abadiño)  
Tel.: 94 620 16 21  
Larrialdia: 655 88 14 22  
www.gurekide.es - cvgurekide@gmail.com

Medikuntza - Análisis klinikoa - Ekografia - Erradiologia  
Kirurgia - Ospitalizazioa - Ile-apainketa - Osagarriak



# «Banku txarra» erdi-prezioan salgai

1.500 milioi euro balio duen Neinor Barria 800 milioitan saldu nahi dio Kutxabanke inbertsio funts bati. Cajasurrek adreiluan egindako zulo handiena biltzen du higiezin agentziak.

| URKO APAOLAZA AVILA |

HUTS EGINDAKO operazio urbanistikoetan inbertitutako diruak Neinor Barria higiezin agentzian («banku txarra» ere deitua) dauzka bilduta Kutxabankek. 1.500 milioi euroko aktiboak direnak 800 milioi eurotan salduko lituzke orain, eta *Expansión* egunkariaren arabera, akordioa kasik itxita dago Lone Star inbertsio funtsarekin.

Kutxabank aspaldi dabil funtsen kudeaketaren negozioan sartuta eta eperako gordailuak dituzten bezeroei horietan inbertitzeko aukera ematen die. Honakoa beste pauso bat litzateke inbertsio funtsekin harremana estutze aldera. Neinor Barriaren ondarean lurzoru ugari dago eta Lone Starrek Kutxabankekin batera «garatu» nahi lituzke horiek.



Mario Fernándezek sustatutako Cajasurren erosketak sortu du Kutxabanken zulo handiena.

Higiezin agentzian, adreiluen negozioari lotutako Cajasurren aktibo toxikoak dira zati handiena (634 milioi euro). Mario Fernándezek bultzatu zuen Cajasur Kordobako kutxaren erosketak, 2010ean

BBK-ko presidente zela, entitateak Espainiako finantza merkatuko «aktore nagusietakoa» bihurtzeko ametsarekin. Orain, sekulako pagotxa zena erdi-prezioan salduko du Kutxabanke, bidean ehunka milioi euro utzita.

## Mario Fernándezen dimisioa eta pribatizazioa

Espainiako Bankuak aurki esango du BBK, Kutxa eta Vital banku fundazioak Kutxabanken akzionista bakarra diren ala hiru diren. Lehenengo

kasuan, 700 milioi euroko erreserba funtsa beharko lukete bankuaren %50etik gorako kontrola mantendu nahi izanez gero, bigarren kasuan 300 milioi eurokoa litzateke. Dirudienek, banku zentralak bigarrenengo aukeraren alde egingo luke, eta horrenbestez, dirua lortzeko Kutxabanken kapital pribatua sartzea defendatzen dutenen argudioak indarra galduko luke.

Hori izan ei da Mario Fernándezek Kutxabankeko presidente bezala dimititzeko arrazoietako bat. Heda bide nagusietan ere bankuaren pribatizazioaz EAJrekiko zituen iritzirik desberdinak haizatu dituzte. Eragile sozial eta sindikatuen ustez, aldiz, desadostasuna tempoetan baino ez dago, hauteskundeak gertu baitira.

Aldiz, oharkabea igaro dira Neinor Barriaren inguruko negozioen berriak, «diskrezioa» nagusitu da gai horretan. Argitzeke dago salmenta horrek erlaziorik duen bankuak erreserba funtsa sortzeko duen kapital behararekin eta Fernándezen dimisioarekin. ■



## 100 milioi euro gehiegizko klausulek kaltetutako herritarrei

HIPOTEKA maileguen erreferentzia indizea (HMEI) aplikatzeagatik, Kutxabanke 100 milioi euro itzuli behar dizkie kaltetuei, HMEI Stop Gipuzkoa plataformak egindako kalkuluen arabera. Indize hori 2013an desagertu zen, baina entitateak bere mailegatuei aplikatzen die oraindik.

30 demanda judizial bateratu jaso ditu Kutxabanke azaroan HMEI dela eta. Hirian.com-ek jaso duenez, HMEI Stop Gipuzkoak kalkulagailu bat sortu du, mailegatuek jakin dezaten bankuak zenbat diru itzuli beharko lieken. «Guztira 100 milioi euro bueltatu beharko lituzke Kutxabanke, familiako 10.000-15.000 euro artean», azaldu du plataformak.

### Presidente berriarekin negoziatzeko prest

Diru kantitate hori itzultzeak Kutxabankentzat izan ditzakeen ondorioak kontuan hartuta, Gregorio Villalabeitia presidente berriari «eskua luzatzeko prest» dago HMEI Stop Gipuzkoa, negozioari begira.

Baldintza batzuk eskatzen ditu horretarako, Xabier Iturbe Kutzako presidentearen dimisioa eta HMEIren ondorioz kaleratutako pertsonei etxea itzultzea, besteak beste.

Nerea Ibarzabal Salegi



## Euskaraz ikasi nahi duten herrien batzarra Tafallan

EUSKARAZ BIZI ETA IKASI Herri Ekimenak antolatu du abenduaren 14ko eguna. Goizean, euskaraz ikasi nahi duten herrien batzarra egingo dute. Ondoren, aisialdiari egingo diote tarte. Ume eta helduentzako entretenigarriak izango dira, hala nola, puzgarriak, haurrentzako jolasak eta tailerrak, dantzak, erakusketak, Garesko munstroak, bertsolariak eta joteroak. 13:00ean kalejira abiatuko dute ondoko lelopean: *Otros muros cayeron. Zonifikazioarekin amaitzeko garaia da!*

## Kultura aniztasuna eta euskara aztergai

EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAK antolatu ditu jardunaldiak abenduaren 12an, Andoaingo Martin Ugalde kultur parkean. *Euskara aniztasunean* jarri diote izena topaketari eta kultura, hizkuntza eta jatorri asko barnebiltzen dituen gizartearen euskara ardatza izan dadin orain arte egin diren esperientziak eta aurrera begirako plangintzak landuko dituzte. Jasone Mendizabal Euskaltzaleen Topaguneko zuzendariak *Euskara, partekatzen duguna* dekalogoaren aurkezpena egingo du. Euskara ardatz hartuta lanean ari diren egitasmoen artean Getxoko esperientziaren berri jakiteko aukera izango da. Getxokoaz gain, Auzoko programak Arrasateko eta Aretxabaletako esperientziak kontatuko ditu eta Onki Xin harrera egitasmoak Pasaiakoa. *Hizkuntza eta kultura aniztasuna Euskal Herrian gaur, eta horren inguruko jarrerak eta iritziak* ikerketaren aurkezpena ere egingo dute.

## Bahea

JJ Agirrek [erabili.com-en](http://erabili.com-en) esanak:

“Mitxelena biziko balitz eta Eusko Jaurlaritzara bisita egingo balu, ikusiko luke euskararen ‘iraupena eta hazkuntza’ itzulpenetara mugatuta daudela sail gehienetan, lana erdaraz burutzen delarik naturaltasun osoz, ardura-dun politikoetatik hasita. Ikusiko litzuke normalkuntza teknikari gehienak itzulpenak egiten gehienbat, eta itultzaille talde mardul bat, sailetatik datorkien erdarazko produkzio agortezina euskaratzen, ezin abasto emanda. Mitxelena biziko balitz, atsekabe galanta hartuko luke osasun zerbitzu gehienetara jotzean, edo ertzainekin topo egitean, euskarak ofizialtasun ‘osoa’ lortu eta 35 urte luze geroago ere. Bikain ziurtagiraren banaketaren helburua: lan munduko lorpenak aitortzea omen.

Enpresek euskararekin duzen konpromisoa txalotu nahi omen dute agintariok, ‘euskara ez dadin maite dugun hori bakarrik izan’... Besteri aholkuak banatzeko pronto, Jaurlaritzan euskara planak hedatzeko presarik ez duten horiek”.

## EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

### Confebask eta elkarrizketa sozialerako mahaia

Eusko Jaurlaritzak elkarrizketa sozialerako mahaia deitu du abenduko lehenengo astean. Gobernua, patronala eta sindikatuak izango lirateke protagonista. Baina azken egunotan gertaera larri bat jazo da eta Jaurlaritzak mahaia bertan behera utzi beharko luke. ELAk eta LABek sarbidea izan dute Confebaskek egindako dokumentu batera, eta bertan patronalak proposatzen du bi sindikatu horiek erakunde sindikalen erregistrotik ezabatu ahal izatea, “lan arlotik kanpoko” iritzi eta jarduerekin jarraitzen badute. Dokumentua ukatu egin du Confebaskek, baina sindikatuak esan dute egilea bera dela. Antza, Espainiako Gobernuak erakunde sindikal eta patronalen inguruan darabilen proiektu bati euskal enpresarien konfederakuntzak egindako ekarpena da. Hori baieztatzen bada, aldarrikapenak egiten dituen eta subiranoa den sindikatu oro legez kanpo uztea litzateke. ELA ez da handikerian erori Confebask “golpista” moduan deskribatu duenean.

Testuinguru horretan, elkarrizketa sozialerako mahaia bertan behera geratu beharko luke, areago ELA eta LAB sindikatuak haren kontrako jarrera azaldu dutenean. Hori koartada bezala erabili dezakete sindikatu abertzaleak legez kanporatzeko, aldiz, haiek legez kanpo uztea helburu duen patronalarekin esertzea ere, helburu horri berari hauspoa ematea litzateke. Eusko Jaurlaritzak eta beste sindikatuak kontuan izan behar lukete egoera zein den, eta jarrera ez badu aldatzen, Confebask bakarrik utzi beharko lukete. Euskal Herriak egun dituen arazoak oso larriak dira: gazteen langabezia –gazteen erdiak baino gehiagok ez du ez lanik ez etorkizunik– eta 45 urtetik gorakoena, adibidez. Gehiengo sindikala osatzen duten ELA eta LAB legez kanpo uzteko moduan gaude... Confebaskek kontu hau argitu beharko luke neurri zehatzekin, hitzekin soilik ez du balio.

Juan Mari Arregi





# Pribatizatua irauli: Hanburgok argindar sarea publiko egin du

Euskaldunok aurrezki kutxa eta beste ondasun publikoak ugazaba handien eskuetan uzten jarraitzen dugun bitartean, alderantzizkoa egitea lortu dute beste leku batzuetan. Alemaniako Hanburgon herritarrek erreferendumean erabaki dute orain hiriko argindar sarea eta bi urte barru gasarena berriro publiko bihurtzea.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

MOORBURGTRASSE-KO ZUHAITZAK defenditzeko 2009an antolatutako ekintza hark espero baino soka luzeagoa ekarri du Hanburgon. Abendu hartan dozena bat jende igo ziren arboletara, “*Moorburgtrasse Stoppen!*” kanpainari hasiera eman ez. Agintariak baimena ematekotan ziren ehunka zuhaitz mozturik hiru parke zeharkatu behar zituen gas-hodi berriari.

“Parkea gurea da!” eta “Zuhaitzak defenditu ditzagun!” oihukatu zuten hiru hilabetez adar gainetan antolatutako etxola eta plataformetatik. Neguko elur, euri, haize eta ekaitzei aurre egin behar izan zieten, harik eta 2010eko martxoan epaitegiek bermatu zieten arte zintzilik geratzen zela gas-hodiaren proiektua.

Alemaniako hiririk berdeenetakotzat daukaten Hanburgon Vattenfall korporazio suediarra ikatzezko zentral berria eraikitzen ari zen eta ekintzaileek defenditzen zuten parkea zeharkatu behar zuen Elba bazterreko zentral berriaren eta hiriaren arteko gas-hodiak. Moorburgtrasseko borrokalariek lortu zuten gai potoloago bat ipintzea Hanburgeko agenda politikoan: klimaren aldaketaren eta energia berriztagarrien hariari tiraka energiaren jabegoa jarri zuten auzitan.

Hiru urte beranduago, 2013ko irailean, Hanburgoko argindarraren eta gasaren hornitzaileen jabegoa bozkatu dute erreferendumean. Alegia, ea herritarrek nahi duten konpainia pribatuen esku jarraitzea ala berriro, aspaldi bezala, enpresa publikoen jabego izatea. Ekologisten, kontsumitzaileen eta zenbait konfesio erlijiosoren taldeek eginik energia iturrien publikotasunaren aldeko kanpaina, doi-doi izan arren irabazi egin dute galdeketa.

Ondorioz, Alemaniako bigarren hiri handiena den Hanburgok bere gain hartuko ditu argindarra, gasa eta auzoko kalefakzioa (berokuntza komunitarioa da Ipar Europako leku askotan), duela urte batzuk Vattenfall eta E.On konpainiei agintariei saldu zizkieten zerbitzuak berreskuratuz.

Albistearen xehetasunak *The Guardian* britainiarrean eskaini dituzte Claire Provost eta Matt Kennard kazetariak “*Hamburg at forefront of global drive to reverse privatisation of city services*” (Hanburgo aitzindari hirietako zerbitzuen pribatizatzea iraultzeko mundu osoan zabaltzen den joeran) kronikan.

“Bidean –idatzi dute Provost eta Kennardek– Hanburgok bat egin du munduan zehar pribatizazio esperimentuak amaitutzat ematea erabaki duten hiri gero eta ugaria-

Argazkian, “*Unser Hamburg, Unser Netz*” (Gure Hanburgo, Gure Sarea) mugimenduko kideak 2013ko urrian ospatzen erreferendumean lortutako garaipena. Ordura arte udalak sarearen jabegoaren %21 kontrolatzen bazuen, erreferendumaren ostean %100 eskuratzea negoziatu du Vattenfall korporazioarekin. Azkenean 500 milioi eurotan erosi dio sarea, multinazionalak ez dute ezer oparitzen. Datorren urtean gas horniduraren jabegoa lotu beharko dute. Kanadatik zerbitzu publikoen birpublikatzearen behatzaile ari den *Municipal Services Project* fundazioatik David McDonald irakasleak ohartarazi du urteotako tsunami neoliberalaren ostean ez dela erraz zerbitzuak multinazionaleri kentzea: “Davidek Goliati egindako batailaren tankera har dezake zureak korporazio handi batekin kontratua eten nahi baduzu”. Hego Euskal Herriko udal hauteskundeetan eztabaidatuko ote da honetaz?

goekin. 2007tik hona Alemanian bertan 170 udal baino gehiagok pasarazi dituzte energia zerbitzuak berriro esku publikoetara. Mundu mailako 100 hiri handi baino gehiagok egin dute gauza bera ur zerbitzuarekin azken 15 urteotan, tartean Frantziako dozenaka hirik, lehen uraren pribatizazioan aitzindari izan den Frantzia bertan, alegia”

## Utikan, Vattenfall eta E.On

Hanburgokoa bezalako erreferendum orok ez du eman fruitu berdina. Berlinen 2011n herritarrek ez zuten babestu ur zerbitzua konpainia pribatuari kentzea proposatzen zuen galdeketa. Hala ere, gero eta hiri gehiagotan ikusten dira mugimenduak azken 30 urteotako neoliberalismoak zerbitzu publikoak, tartean ura eta energia, pribatizatzeko egin duen bidean atzera egin nahian.

Energiaren birpublikatzea Hanburgon gertatu izanak erakusten du zein indartsu datorren mugimendu berria. Munduko portu handienetakoren jabe da, globalizazioaren muinean dago, Europaren sal-erosgaietako asko hiri moderno honetatik pasatzen dira. Eta erabaki du energia konpainia pribatuek kontrolatzen zuten aroari agur esatea.

2010ean militantek ekin zioten “*Unser Hamburg, Unser Netz*” (Gure



national Institute erakundeek. Horiei esker dakigu, esate baterako, ur zerbitzuei dagokienez 180 baino gehiago direla aurretik pribatizatutako zerbitzuak berriro kontrol publiko-  
ra pasatu dituzten hiriak. Badira kasuak Frantzian (Bordele bera, esaterako), Alemanian, Hungarian (Budapest), Argentinan (Buenos Aires), Indonesian, Mozambiken (Maputo)...

Ez dira beti ezkerrekoak izan urratsa eman dutenak. AEBetan agintari kontserbadoreek egin izan dute, horrela komunitateak dirua aurrezten duelako. Beste zenbaitetan konpainiek berek egin dute ihes, etekinik ikusten ez zutelako. Baina gehienetan mugimendu sozialak dira zerbitzu publikoak berriro publiko bihurtzea behartu dutenak.

Hamburgoren kasuan, herritarren artean indarra hartu du energiako trantsizioaren beharrak. Erreferendumeko galderan energia sarea berreskuratzeaz gain proposatzen zen helburutzat ezartzea “gizarte aldetik bidezkoa, demokratikoki kontrolatua eta klimarekiko jasangarria izango den energi hornidura, iturri iraunkorrek sortua”.

Korporazio handiek ez dute interesik proiektu txiki eta ez-zentralizatueta. Aldiz, udalak bere gain hartzeak ekar dezake energia sistema aldatzea, jendeari prezio egonkorak eskaintzea, eta hiriak menpekotasun txikiagoa edukitzea urrundik ekarri beharreko erregai fosilekiko. Negu honetan, Hego Euskal Herriko udal hauteskundeetan eztabaidatuko ote da honetaz? ■



Hanburgo, Gure Sareak) kanpainari, Vattenfall eta E.On multinazionalen kontratuak amaitzeaz zirenean. Mugimenduaren barruan, ekologistek uste zuten sareak berreskuratzeak hiriari ekarriko ziola energi iturrien kontrol hobea, lagunduz nuklearretik eta ikatzetik berriro garritarako trantsizioan.

Kontsumitzaileen elkarteek argudiatzen zuten Vattenfall eta E.On zirela aldi berean energiaren sortzaileak eta erosleak, eta hori txarra zela erosi behar zieten herritarrentzako. Talde erlijiosoen eta txirotasunaren kontrako erantzen zuten energi sareek ez luketela egon beharko esku pribatueta, administrazio publikoak kudeatu beharko lituzkeela. Azkeneko, mugimen-

duan elkar hartu zuten adineko jende erretretadunek, ikasleek eta kaleko musikari bohemioek.

Alemanian gero eta hiri gehiago dira abiatzen bide beretik. Hamburgoko ingurumen eta hiri plangintzako arduraduna izandako Christian Maasek kazetariei esan dienez, “jendea interesatuta dago gertuko energia hornitzaileetan, eta hau ezin da ezkondu konpainia zentralizatu eta irabazi handietara bideratutakoekin”. Fenomeno bera ari da ikusten Amerika eta Asiako hiri askotan.

Birpublikatzeaz, dena dela, informazio gutxiegia zabaltzen da. Eskuratzen ere ez baita erraza. Lan baliosa egiten dute alor horretan Public Services International Research Unit (PSIRU) eta Trans-



ZINKUNEGI  
OPTIKA

**Garantia.**

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,  
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com





Xabier Letona



DANI BLANCO

## Zatiketa baino, saldu aldaketa

**JOSE JAVIER ESPARZA** da azke-nean UPNko hautagaia, aurreikusi moduan, baina aurreikusi baino samurrago. UPNko Kontseilu Politikoan (232 lagun) botoa emandako 208 kideetik 128k (%61) Esparzaren alde egin zuten eta 79k (%39k) Alberto Catalanen alde. Zartakoa handia izan da Miguel Sanz eta Catalanek gidatzen duten sektore kritikoarentzat. Bazekiten Kontseilu Politikoan gaitza zela eta horregatik eskatu dituzte primarioak etengabe, militanteen artean Yolanda Barcinaren desgastea handiagoa izango zela-koan. Baina Barcinak ere bazekien hori eta ez du arriskurik hartu nahi izan. Nahiko korapilo sortu du bere kudeaketan, orain azken unean berriz hanka sartzeko. Alderdia kontrolpean du oraindik eta berriz atera da garaile.

2013ko martxoan izan zen Barcina-Catalan lehia UPNren kongresuan eta orduan nafar gobernuko lehendakaria estu ibili zen: 871 boto bere alde (%51,78) eta Catalanek 795 (%47). Alderdia zatitua utzi zuen lehiak eta Barcinaren ondorengo gurutz-bideak ez du batere lagundu zauriak sendatzen. Kontrakoa, Barcina ahulduta ikusirik eta datozen hauteskundeetan gobernu kolokan, Sanzen taldeak lema hartzeko saioa errepikatu du. Emaizta porrota izan da eta saioak Catalan kiskali du jada.

Zein ote zen hautagai hobearen oposizioarentzat? Berdintsu seguru-rik, baina akaso botoemaileei begira Catalanek distantzia gehi-ago zuen Barcinarengandik eta Esparza lotuagoa ageri da hareki-ko, besteak beste bere sailburua delako. Edozein modutan, UPNri bozka eman bai baina amorratua ez den herritarraren aurrean, itxu-

ra eskasa ematen jarraitzen du alderdi eskuindarrak. *Navarrometroaren* emaitza guztiz zalantzagarria zen alderdiekiko boto asmoari begira, baina guztiz argi arbuatzen zituen Nafarroako Gobernu eta Barcinaren kudeaketa.

Hauteskondeei begira, UPNk badu orain hautagaia eta sei hila-bete eskas Esparzari dagokion *lif-tinga* egiteko. Gaitz izango du: lehenbizi berak oso emaitza onak izan behar dituelako eta *Navarrometroak* UPNko boto poltsa handia isildu badu ere, hor bada UPN-ren egoeraren termometro bat; bigarrenik, PSNren emaitza ona behar du eta hori ere gaitza; hiru-garrenik, oraingoz behintzat, PSNk iragarria du beretzat Barci-na edo Esparza gauza bera direla. Baina PSNren sinesgarritasuna non den ere ezaguna da eta zalan-tza gutxi da zenbakiak aukera emango balie, berriz UPN sosten-gatuko luketela.

*Oro har, politikariek gutxi galdetzen dute zintzoki euren jardunaz, erantzutera daude ohituak*

**EGIAZKO OPOSIZIOA** da orain nahasi ageri dena, batez ere Podemosek dakarren beldurragatik eta honek ez duelako batere argi utzi nola jokatu lukeen eta non era-bakiko litzatekeen balizko gober-nu batean egotearena edo ez. Oraindik foru hauteskundeetara aurkeztuko den ere ez dago argi, egia esan, nahiz eta dituzten aurreikuspenekin, ez aurkeztea ez litzatekeen ez koherentea ezta arduratsua ere. Teorian bederen, Podemosentzat balizko gobernu eraketarako arazorik handiena EH

Bildu litzateke, horrek Espainiako hauteskunde orokorretan leka-keen boto galeragatik. Oposizio-ko batzuentzat hauek PSN edo PP bezain espainiarrak dira, zentralis-ta hutsak. Beste batzuek beren ezkertartasuna jartzen dute zalan-tzan edota demagogotzat jotzen dituzte. Podemos saltsa-maltsa handia da oraindik jakiteko zehatz-mehatz zer den eta zer izango den, baina zalantzarik ez dago gauza batean, haserrearen alderdia da, gizartearen zati bat esnarazi dute –beste alderdiek lor-tzen ez zutena– eta aldaketak eka-rriko dituzte.

Alderdiek oso beren barrutik aztertzen dute gizartea, honen martxara egokitzeko saioa eginez baino, berau moldatzeko etenga-beko ahalegina lehenetsiz. Oro har, politikariek gutxi galdetzen dute zintzoki euren jardunaz, erantzutera daude ohituak, zalan-tzarik gabe gidari sentitzen dena-


ren segurtasunaz luzatzen dute pausua, mundua etengabe haien jira-biran bailitzan. Horrek perspektiba galarazten die.

Horregatik, aldaketa une honetan, Nafarroako egiazko oposizioak zerbait argi utzi beharko balu, horixe da, aldaketa izango dela haien lehen-lehen asmoa eta eginahalak egingo dituztela hori gauzatzeko. Boto lehiari izango dira Podemos, EH Bildu, Geroa Bai eta Ezkerra, baina formulak formula, aldake-tarako aukera horien artean dago Nafarroan. Hori da gizarte-ari argi utzi behar diotena edozeren gainetik, aldaketa izango dela. Mezu hori da oraindik guz-tiz argi luzatzen ez dutena. ■



ASTE HONETAKO

# zozketa



Argiako harpidedunentzat



## Bizkaiko bertsolari txapelketa

Final aurrekoa

Lagun batentzat bi sarrera

Abenduak 20, larunbata 17:30ean  
Bilbao Arena (Miribilla)  
Bilbo (BIZKAIA)

[www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu)

1

pitxipolit

bitsigintza  
jewellery  
joyas



## Pitxipolit

zilarrezko  
bitsigintza

Belarritako pare bat  
opari

[pitxipolit.artesanum.com](http://pitxipolit.artesanum.com)  
Hernani GIPUZKOA

2



## Iruñeko Planetarioa

3 lagunentzako  
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g  
Iruñea NAFARROA

[www.planetario.org](http://www.planetario.org)

3

STM  
San Telmo Museoa



## San Telmo museoa

3 lagunentzako  
bina sarrera

Zuloaga, 1  
Donostia GIPUZKOA

[www.museosantelmo.com](http://www.museosantelmo.com)

4

Bixente ARGIA rentzako



## Bixente Ameztoy ARGIA azalak

1978. urtean Bixente Ameztoyk  
Zeruko Argia aldizkarian egindako  
36 azal laminatan inprimatuak

Lamina sorta  
[www.argia.com/denda](http://www.argia.com/denda)

5

## AZKEN IRABAZLEAK (2438. Argia)

### BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA

- Joseba Berriotxo Alberdi (Zornotza)

### EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- Jon Mikel Barandiaran Arratibel (Erreterria)
- Ander Epelde Ezenarro (Soraluze)

### SAN TELMO MUSEOA

- Lorenzo Zubeldia Aierbe (Lizartza)
- Estitxu Kortajarena Ugarte (Tolosa)
- Leire Narbaiza Arizmendi (Eibar)

### IZEBERG Azalera CDa

- Justo Ezenarro Mugaguren (Bilbo)
- Jon Goti Mendiola (Usansolo)
- Xanti Saizar Arostegi (Tolosa)
- Itziar Garcia Blazquez (Oñati)
- Josune Arandia Belaustegi (Lemoa)

### ERLEA GURE SENDAGILE liburua

- Migel Anjel Mintegi Larraza (Beasain)

\* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

## PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • [guinea@argia.eus](mailto:guinea@argia.eus)

[www.argia.eus/guinea](http://www.argia.eus/guinea)

guinea

argia







ZIENTZIA  
IRAKURLE  
ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure!  
arteak  
euskaraz



BIZKAIA  
BIZIA